ASTELEHENEKO
# Goienkaria
2010eko martxoaren 1a > Astelehena > VI. urtea > 267. zenbakia > 1,10 euro
www.goiena.net TOKIKOM

"Krisiak antolatzeko beharra erakutsi digu, alternatibak sortu behar ditugula"



**Alberto Minguez**
Fiare banku etikoko kidea > 08

**G2a** Ugarteren musika eta bizipenak denon eskura > 29

**OÑATI**
Azoka txikia plazako frontoi ingurura hurbiltzea aztertzen > 11

**ARETXABALETA**
36ko gerra eta txakurrak, martxoko erakusketan > 19

**FUTBOLA**
UDAk bigarren garaipena jarraian lortu zuen Laudioren kontra > 22



APURTUTA Alex Martin Azkoagain (Oñati) futbol-zelaiko zaintzailea, haizeak teilatura igotako jarlekuak seinalatzen.

MIREIA BIKUÑA

**HAIZEALDIA** > KALTEAK HERRI GEHIENETAN

# Hiru sute, teilak eta zuhaitzak behera, eta argindar barik

**SUTE BANA** Arrasaten, Bergaran eta Elgetan sute bana piztu zen zapatu iluntzean; handiena Arrasatekoa izan zen

**30 ORDU JARRAIAN** Oñatiko suhiltzaileek 30 ordu jarraian egin zuten lan zapatutik domekara bitartean

**ZAURITU GUTXI** AP1 autobidean, Soraluze parean gertatu zen istripurik larriena: bi zauritu larri eta sei arin > 2-3

**POLITIKA** > ATXILOKETAK

## Atxilotuta ustezko hiltzailea

Atxilotu egin dute Isaias Carrasco zinegotzi sozialista ohiaren ustezko hiltzailea: Beñat Aginagalde. Frantziako poliziak eta Guardia Zibilak atxilotu dute. > 34

**AURKIBIDEA**

**Debagoiena** > 02-06
**Auzoak** > 07
**Elkarrizketa** > 08
**Iritzia** > 10
**Herriak** > 11-20
**Kirola** > 21-27
**Kultura** > 29-31
**Sailkatuak** > 34-35
**Telebista-irratia** > 37
**Berri-zakua** > 38-39
**Azkena** > 40

**ZERBITZUAK** > TASAK

## Agorrosin garestiago gaurtik

Agorrosin erabiltzearren gehiago ordainduko dute beste herrietakoek > 06

**KULTURA** > DOKUMENTALA

## Sentipenak azalean, Amaian

Arrakastatsua erabat izan zen John Anduezaren *Simplemente* dokumentalaren aurkezpena, Arrasaten. Arrakastatsua jende aldetik, baina bereziki, ikusleek txalo zaparradarekin egin zioten harrerarengatik > 30



Iritsi dira otsaileko opariak! Badago zuretako?
Zoaz 7. orrialdera

**HAIZEALDIA** > KRONIKA

# Kalte ugari eragin ditu haize

Teilak jausteagatik automobil askok jasan zituzten kalteak hainbat herritan

Errepide batzuk eten egin behar izan zituzten, haizeak arbolak bota zituelako




Auto Desguaces Bergarako pareta behera etorri zen zapatuan, barruko automobilen gainera. JOSETXO ARANTZABAL

**UBANE MADERA**> ARRASATE

Gaur parteak egiteko eguna da Debagoieneko herri gehienetan. Salaketak eta kexuak jaso, kristalak konpondu, paretak berregin… Xinthia ziklogenesiak utzitako arrastoak ezabatzen hasteko eguna, alegia.

Arrasatearrek beltz ikusiko dute San Kristobal mendiaren zati bat, sua hartu zuen-eta, argindar poste bat jausi ostean.

Aretxabaletarrek eskertu zuten zapatu gauean argia etorri zitzaienean, nahiz eta gero atzera ere joan, gero berriro bueltatzeko.

Oñatiarrek badute nahikoa lan, besteak beste, Azkoagain futbol-zelaian konponketak egiten.

Baina, berriz, aramaioarrak, adibidez, oraingoan pozik daude, ez da-eta, "aparteko ezer gertatu".

**GOIZALDERA ARTE LANEAN**

Kontuak kontu, Debagoieneko herri gehienetan zeregin asko izan zuten zapatu arratsaldetik goizaldera arte. "03:00ak arte ibili nintzen ni, eta etxeratzean, han geratu ziren besteak, leku eta gauza asko zeuden zaintzeko!", kontatu du Patxi Arburuak Arrasateko Zerbitzuburuak.



Asentzioko bidegurutzean makina bat zuhaitz bota zituen. JOSETXO ARANTZABAL

**HIRU SUTE ETA ISTRIPU LARRIA**

Zubillagako suhiltzaileek ere ez zuten atsedenerako aukerarik izan. Zapatu iluntzean Arrasaten ibili ziren San Kristobalgo sutea itzaltzen (01:00etarako guztiz itzalita zuten). Tartean AP1 autobidean, Soraluze inguruan, hiru automobilen gainera jausi zen panelarengatik trabatuta geratu zirenak ateratzen ibili ziren (bi zauritu larri eta sei arin). Zuhaitz mordoa ere erretiratu behar izan dituzte, Bergaratik Angiozarrera bidean, adibidez. Eta Elgetako txabola batean gertatutako sutea itzaltzera zihoazela, Bergarako San Blas auzoko baso batean piztu zena emendatzen ibili ziren. Domekan oraindik ere Arrasaten zebiltzan, Elkano kalean (Musakola) arriskutsu geratu diren teilak erretiratzen.



Arrasateko obra baten kartela, hormigoizko oinduna, iraulita utzi zuen. U.M.

DATUA

# 1.332

**DEI BOST ORDUAN**

SOS Deiaken telefonoan (112) 3.629 dei jaso zituzten bost orduan (zapatuko 15:00etatik 20:00ak bitartean); horietatik 1.332 gipuzkoarrek egindako deiak izan ziren.

HAIZEALDIAREN GAINEKO KONTAKIZUNAK



**Antonio Hernandez**

"Ez genuen beldurrik pasatu etxean geundelako, baina leihoetan entzuten genuen egundoko burrundara, eta ondoko etxeko teila batzuk jausten ere igarri genuen. Guri ez zaigu ezer pasatu. Etxera iritsi eta gutxira jausi ziren, justu, hemengo zuhaitzak. 17:00ak ingurua zen. Semea Agurainen bizi da eta egundoko bueltaa eman behar izan zuen etxera iristeko, zuhaitz asko bidean jausita zeudelako. Nire ustez, alerta gorria justifikatuta zegoen"



**Joxe Ikurra**

"Nik ez nuen beldurrik pasatu, elkartean egon ginen-eta. Haize boladak, baina tokatu zaizkit. Baina 00:00etatik 02:00ak arte ibili da, haizea, bai; neu 00:00ak arte kalean ibili nintzen… Hori bai, pentsatzen zait bestetan ere izan dela halako antzekorik. Alaba Orion bizi da eta han ez da ezer ere egon. Nik uste alerta gorria larregikoa izan dela, jendeari beldurra sartu zitzaion azazkaletaraino, nire lagun batzuek 21:00etarako joan ziren etxera".



**Aitor Arnaiz**

"Ez genuen beldur handiegirik pasa; etxera joan ginen eta han izan ginen. Ondo egon ginen. Geure etxeari ez zaio ezer pasa, ezta gure ezagunei ere. Argindarra joan zitzaigun, baina hori ere oso gutxi. Eta kalean ibili ginen denboran, igarri genuen haizea indartsu zebilela, baina ez bestetan baino gehiago. Ezarri zuten alerta gorri hori guretako akaso larregi izan dela pentsatzen dut, kostalderako ondo dago, baina guretako… "



**Iker Camacho**

"Arratsaldean Arrasaten ibili nintzen eta haize asko zebilen. Edukiontziak ikusi nituen errepidean… Lagunarekin autoan ere ibili nintzen apur bat eta beldurra pasatu nuen, autoa mugitu egiten zuelako. Iragarritakoa bete-betean asmatu dute. Gauean, berriz, 18.00etatik 00:00ak arte haize ufada handiak izan dira, gero badirudi baretu egin dela. Amak kontatu dit armairuko ateak eta teilatu hodia apurtu egin dizkiola, eta suhiltzaileei deitu ziela."



**Rufino Altuna**

"Lo egin barik ibili gara. Hemengo zaratak ez zuen akaberarik. Haizea beldurgarri zebilen, ezin zitekeen lorik egin; lo egiteko mozkortuta egon behar! Aramaiokoa naiz eta akordatzen naiz mutikotan teilak egotea kalean, baina gaur gauekoa modukorik ez dut ezagutu… teilak jausi dira, edukiontzia gau osoan ibili da bueltaka, haizeak eraman zuen harantz eta honantz… Niretako 23:00etatik 01:00ak ingurura arte izan dira ufada handienak".

# aldiak han eta hemen


Arrasateko San Kristobal mendia sutan, zapatuan. JOSETXO ARANTZABAL


Mutikoek eraman zuten Oñatiko Udaltzaingora haizeak botatako Ikurrina. M. B.


Oñatiko kiroldegiko kristala, apurtuta. JOSETXO ARANTZABAL


Oñatiko San Martingo haritzetako bat bota zuen haizeak. MIREIA BIKUÑA


Suhiltzaileak lanean, teilak baztertzen. JOSETXO ARANTZABAL






**Maider Arregi,** Goiena Telebistako kazetaria, Azkaraten zubisaltoa egin ondoren.

# Egin dugu salto

**Orain digitalera salto egin dugu:**

**> BERGARAN**

Goiena Telebista dagoeneko digitalean:
ARETXABALETAN, ESKORIATZAN
ETA LEINTZ GATZAGAN.

Laster digitalean:
BERGARAN, OÑATIN, ANTZUOLAN,
ARAMAION ETA ELGETAN

Goitb
Goiena Telebista

*Ikustekoa!*



Oñatiko Arrikrutz koben ardura duen Ikerne Altube.
ANDER MONEDERO

**Ikerne Altube** > Oñatiko Garapen eta Turismo Agentziako gerentea

# "Kobetan dagoen ondarea ezagutarazi gura dugu Kobazuloen Eguna antolatuta"

MIRARI ALTUBE > OÑATI

**Kobazuloen Eguna egingo dute martxoaren 7an, Mugarik Gabeko Lurpea taldeak antolatuta. Euskal Herriko zortzi kobazulo daude talde horretan: Ekainberri (Zestoa), Sorginen koba (Zugarramurdi), Urdazubiko leizeak (Urdazubi), Mendukilo kobak (Astiz-Lekunberri), Sarako leizeak (Sara), Pozalaguako kobak (Karrantza), Kobenkoba (Karrantza) eta Arrikrutz (Oñati).**

**Nondik dator Kobazuloen Eguna egiteko ideia?**

Orain dela bi urte sei kobazulotako ordezkariak elkartu ginen eta lanean hasi: proiektu bateratuak, promozioak... Gero, beste bi koba elkartu zitzaizkigun, Kobenkoba eta Ekainberri, eta asmoa da errekurtso berdintsuko kobazuloak elkarlanean jardutea. Hala, promozioak elkarrekin egin liburuxka bitartez, webgunearekin...

**Zein da egun horren helburua?**

Kobak ondare oso garrantzitsuak direla uste dugu. Elkartutako zortzi kobetatik lau, gainera, oso berriak dira eta zer erakutsi handia daukate. Hori guztia ezagutzeko samurtasunak eman gura ditugu; horregatik Kobazuloen Eguna. Gainera, teknologia berrien bitartez gaurkotasunera eta merkatuari egokituta ematen da ondarearen berri.

**Hortaz, zer ikasi handia dago lur azpian, *seigarren kontinentea* esaten den horretan?**

Izugarrizko ondarea da: naturala –kareharrian sortutako kobak–, historikoa, arkeologikoa eta paleontologikoa... Eta gero horien inguruan sortutako kondairak daude. Gainera, hori guztia ezagutarazteko errespetu handiarekin egin dira proiektuak; hala nola argi bereziak daude, plataforma bereziak, argi dinamikoak kobendako kaltegarriak diren landareak sor ez daitezen... Eta zabaldu ezin diren koben kasuan, erreplikak egin dira; Ekainberri, esaterako.

**Zein da Arrikrutzek duen berezitasunik aipagarriena?**

Hidrogeologiari dagokionez, oso aberatsa da; izan ere, 120.000 urteko errekaren ibilbidea ikusten da. Eta azken urteotan filtrazio bidez sortutako ezaugarriak ditu: estalaktitak, estalagmitak... Paleontologiari dagokionez, orain dela 130.000 urte bizitako animaliak aurkitu dira, kobetako lehoiaren hezurdura, esaterako. Eta ehunka hartzen hezurdurak ere jaso dira.

> "Teknologia berrien bitartez gaurkotasunera egokituta ematen da ondarearen berri"
>
> "Arrikrutzen aurkitu da kobetako lehoiaren hezurdura, penintsulako bakarra"
>
> "Martxoaren 7an erdi prezioan izango da sarrera; aurrez eskatzea gomendatzen dugu"

**Bi urte pasatu dira Arrikrutz zabaldu zenetik eta 50.000. bisitaria izan duzue. Pozik?**

Bai. Gurea ez da museo bat, bizirik dagoen proiektu bat baizik; hortaz, urtero bete ditugu exijitutakoak. Hala ere, beti aurrera begira gaude, beste erronka batzuei begira: ikasleekin geologia arloa lantzeko proiektuak, koba barru-barruraino sartzeko aukeraren eskaintza...

**Eta bisitariak ere pozik?**

Bai, inkestetan puntuazio onak jasotzen ditugu, batez ere kontserbazioari dagokionez, eta hori garrantzitsua da. 60 minutuko bisitak dira eta batzuek luzeagoak eskatzen dituzte, baina horretarako egitasmo bereziak antolatu izan ditugu.

**Martxoaren 7a da Kobazuloen Eguna; zer egingo duzue?**

Egunean bertan zortzi kobetako sarrerak erdi prezioan jarriko ditugu eta bisitarien artean zozketak egin. Sarrerak aurrez gordetzea gomendatzen dugu egun horretarako, ezustekorik ez egoteko (943 08 20 00).

Bestalde, aurreko egunean, martxoak 6, *Arrikrutz zuzen-zuzenean* egitasmoa izango da. Bisitak autogidatuak izan beharrean, gidariarekin egingo dituzte, beste patxada batekin eta gidariari galderak eginez.

**Aurrera begira ere baduzue beste egitasmoren bat, ezta?**

Bai, apirilaren 25ean geologiaren gaineko eguna izendatuta dauka Unescok, eta, hori aitzakia hartuta, *Arrikrutz barne-barnetik* egitasmoa jarriko dugu abian.

---

**etxeko leihotik**



**Usoa Agirre** > uagirre@goiena.com

## 'Beasain-Durango' edo 'Zain eta zain hil zen bat'

Joan den eguenean Beasain-Durango autobideko lanak ikusten izan ziren Gipuzkoako Foru Aldundiko agintariak Urretxun. Adierazi zuten Zumarraga eta Urretxu arteko zatia aurten bukatuko dutela eta, era berean, aurten hasiko dituztela Deskargako tunela egiteko lanak.

Pozten nau albiste horrek. Izan ere, Deskargaz bestaldeko herri honetan, Antzuolan, etsita ere bageunden sekula errepide hori egingo ez zutela pentsatuz. Ni txikia nintzela, Zumarragan lanean hasi zen gure aita. Egunero Deskargan gora eta behera ibiltze horrek ez zion grazia handirik egin, baina ordurako esana zuten Beasain-Durango errepidea egingo zutela eta tunela izango zuela Deskarga gurutza-tzeko. 1984. urteaz ari naiz. 90eko hamarkadan egin behar zuten; hamarkada eta mendea ere pasa dira dagoeneko. Gure aita erretiratuko da tunela egiterako, baina besteok ere ederki aprobetxatuko dugu azpiegitura hori.

> "Deskargan gora eta behera jarraitu beharko dugu oraindik ere"

Bai? Aprobetxatuko dugu? Foru Aldundiak dituen asmoak entzunda, oraindik ere Deskargan gora eta behera jarraituko dugula iruditzen zait; eta ez guk bakarrik, kamioilariek ere bide hori egingo dutelakoan nago. Zergatik? Bada, Deskarga zeharkatzeko bidesaria jartzeko asmoa dutelako. Krisian gaude, badakizue, eta dirua handik edo hemendik egin beharra dago.

**> Haizea izan dugu protagonista aste bukaeran. Inguru honetan beti gaude alerta gorrian: elurra dela, haizea dela, larregiko beroa dela... Oraingoan, gainera, hitz berria ikasi dugu: ziklogenesi lehergarria. Ez da nolanahikoa!**

**> Txistu kontzertura joateko propaganda egin nuen joan den urtean lerro hauetan. Aurten ere, kontzertua egingo dugu Antzuolako txistulariok martxoaren 7an, domekan. Guztiok gonbidatuta zaudete Torresoroara; ondo etorriak izango zarete!**

---

**AZPIEGITURAK** > AHT

## Bergara eta Antzuola arteko lanak esleitu dituzte

4.289 metroko tarteak 125 milioi euroko kostua du eta 36 hilabeteko epea

MIRARI ALTUBE > BERGARA

Bergara eta Antzuola artetik pasatuko den abiadura handiko trenaren ibilbidearen lanak esleitu ditu egunotan Jaurlaritzak. 4.289 metroko tartea egiteko 36 hilabete eta erdiko epea ezarri dute, 125 milioi euroko kostuarekin.

Bergara eta Antzuola arteko tartea aldapatsua da; horregatik, lurpetik egingo du ibilbide ia guztia trenak. Hala, 3.706 metro luzerako tunela eraikiko dute: Kortatxo-Sakon tunela, hain zuzen. Jaurlaritzak orain arte lizitatutako tunelik luzeena da. Horrez gain, 164 metroko zubia egingo dute Antzina errekaren gainetik eta 157,50 metroko tunel faltsu bat (Egurribai). Beste 129 metro lubakien artean joango dira.

AHTren ibilbidea 2016an bukatuta izango dela iragarri du Jaurlaritzak.

**ZERBITZUAK** > TASAK

# Agorrosin erabiltzearren gehiago ordainduko dute beste herrietakoek

Gaur, martxoak 1, jartzen dira indarrean tarifa berriak Bergarako kirol instalazioetan: txartel mankomunatuak Plus tarifa izango du

**LEIRE KORTABARRIA** > BERGARA

Gaur, martxoak 1, jarriko dira indarrean tarifa berriak Bergarako kirol instalazioetan, Bergaran erroldatuta ez dauden erabiltzaileendako.

Batetik, txartel mankomunatua dutenek igoera nabarmena igarriko dute: aurrerantzean, Plus izeneko tarifa ordaindu beharko dute Bergarako instalazioak erabiltzen badituzte. Plus abonuak honako tarifak ditu: norbanakoarendako, 190,03 euro; familia-abonua, 293,86; eta murriztua (langabeendako, erretiratuendako eta ikasleendako), 112,30. Igoera nabarmena da txartel mankomunatuaren tarifa arruntarekiko: norbanakoaren txartela 142,55 euro da; familia-abonua, 198,70; eta murriztua, 99,30.

Orain arte, Arrasateko kiroldegian izan ezik, beste guztietan –Oñatin, Eskoriatzan, Bergaran eta Aretxabaletan– sar zitekeen txartel arruntarekin; Arrasateko kiroldegia erabili nahi zuenak aukeratu behar zuen urte hasieran erabilera lehorra –kantxak– edo bustia –igerilekuak– nahi zuen; biak nahi bazituen, Plus tarifa ordaindu behar zuen. Hori egin zitekeen Arrasateko kiroldegiak sarrera fisiko bat duelako instalazio mota bakoitzerako. Bergarak eta Oñatik sarrera fisiko bakarra dute bi instalazio motetarako. Oñatik tarifa arruntarekin jarraitzen du, baina Bergarak Plus tarifa ezartzea erabaki du.



Txartel mankomunatua. GOIENKARIA

Martin Etxeberria Bergarako Kirol zinegotziak azalpen hau ematen du: "Bergararrek kanpokoak baino gehiago ordaintzen dabiltza kiroldegiko bazkide txartelagatik. Baina ez da horregatik bakarrik: lehen igerilekuak bakarrik geneuzkan, eta orain, gimnasioa, lehorretako hainbat gune eta, eraikin berean, igerilekuak eta bainuetxea ditugu".

**%50EKO IGOERA**

Antzuolarrek eta elgetarrek, orain arte, bergararrek bezala ordaintzen zuten kirol instalazioak erabiltzearren, baina aurrerantzean, kanpoko beste edozein erabiltzailek bezala ordaindu beharko dute: bergararrek bi beste.

Etxeberriak hauxe dio: "Agorrosin finantzatzen da bergararren abonuarekin, eta defizita Udalak ordaintzen du. Hortaz, zati bat Antzuolak eta Elgetak ordaindu behar dute. Udal horiek ez dute onartu; hortaz, hango erabiltzaileak beste herrietakoak bezala tratatuko ditugu".

ESANAK

**"Bergararrek kanpokoek baino gehiago ordaintzen dute bazkidetza; bestalde, orain gune berriak ditugu, ez igerilekua bakarrik"**

**Martin Etxeberria** > Kirol-burua

DATUA

**190**
**EURO**

Aurtengo Plus tarifa mankomunatua da 190,03 euro; tarifa arrunta 142,55 euro da. Kopuru hura ordaindu beharko dute Bergaratik kanpoko abonatu mankomunatuek, Agorrosin erabiltzearren.

**ATXILOKETAK** > ETA

## Isaias Carrascoren ustezko hiltzailea atxilotu dute

Frantzian atxilotu zuten Beñat Aginagalde, ustez Carrasco hil zuena

**UBANE MADERA** > ARRASATE

Hiru lagun atxilotu zituen Frantziako poliziak atzo goizean (domeka) Normandian, Frantzia iparraldean: Ibon Gogeaskoetxean, Beñat Aginagalde eta Gregorio Jimenez.

Hain zuzen, Aginagalderi (Hernani, 1984) Isaias Carrasco PSE-EEko Arrasateko zinegotzi ohiaren hilketa (2008an) leporatzen dio poliziak, eta baita ere, Inazio Uria enpresaburu azpeitiarraren hilketa. Polizia iturrien arabera, iazko martxoaz geroztik zegoen ihes eginda Beñat Aginagalde.

Ibon Gogeaskoetxea, berriz, ETAko buruzagi nagusietako bezala jo dute.

**IZEN FALTSUAK**

Polizia frantsesak atxilotu zituen ustezko hiru ETAkideak, Guardia Zibilarekin elkarlanean. Informazioaren arabera, izen faltsuarekin errentan hartuta zeukaten etxean atzeman zituzten. Etxean, berriz, hainbat material aurkitu dute: hiru pistola, lehergaiak egiteko materiala, dokumentazio faltsua eta beste.

**AZPIEGITURAK** > BEASAIN-DURANGO

## Urretxu eta Antzuola arteko lanak aurten hasiko dituzte

Lan horien barruan sartuko da Deskargako mendateko tunela

**UBANE MADERA** > BERGARA

Zumarragatik Urretxu eta Legazpiko lotunerainoko zatiaren bi heren osatu dituzte dagoeneko. Argisaoko tunela (900 metro) zulatzeko lanak amaitu dituzte, bi hodietako bat estalita dago eta Urolako zubi bidearen egitura, amaituta.

Diputazioko ordezkariek obrak bisitatu zituzten eguenean eta han ikusitakoaren ostean, zera azaldu zuten: "Obrak erritmo onean doazenez, aurten bertan ireki ahal izango da Gipuzkoako barruko aldeko eskualdeak komunikatzeko funtsezkoa izango den Beasain eta Bergara arteko ardatzaren beste bide zati bat".

**68 MILIOI EURO**

Iragarri zuten, baita ere, hurrengo zatia, Urretxu-Antzuola aurten hasiko direla eraikitzen, Deskargako tunela tartean. Kasu horretan, 68 milioi euroko inbertsioa egin beharko dute. Eta Diputazioak bultzatu duen Krisiaren Aurkako Planean sartu dute errepide zati hori.

### 'Egunkaria'-ren aldeko bilkura egin zuten Mondragon Unibertsitatean

Hego Euskal Herriko unibertsitateek Elkartasun Eguna egin zuten joan den eguenean, eta Mondragon Unibertsitateko Huhezi fakultateak eta Goi Eskola Politeknikoak bat egin zuten horrekin. Hala, *Egunkaria libre* leloarekin elkarretaratzea egin zuten *Euskaldunon Egunkaria*-ren alde. *Egunkaria* itxi eta zuzendaritzako kideak epaitu izana "arbuiatu beharra" dagoela esan zuten deitzaileek. Gainera, herritar guztioi dei egin zieten auzi horren aurkako ekimenetan parte hartzeko.



LARRAITZ ZEBERIO

> ZERBITZUAK

### Erditze naturalean lehena izango da ospitalea, dio PSE-EEk

Eusko Legebiltzarreko Osasun batzordeko kide Blanca Roncalek (PSE-EE) esan du Debagoieneko ospitale berria "aitzindaria" izango dela "erditze naturalean", eta EAEko lehena "erditze naturalerako azpiegitura egokiekin". Ospitalera bisita egin zuen Roncalek, Aritz Arrieta eta Paco Gartzia alderdikide arrasatearrekin.

Blanca Roncal sozialistak esan zuen erditzeko "modu naturalagoa eta hain mingarria ez dena" eskainiko duela zerbi-tzu berriak, eta "hain medikalizatuta ez dagoen erditzea nahi duten bailaratik kanpoko emakume haurdunak" ere erakarriko dituen itxaropena duela.

auzorik auzo

**IRIMOEGIGOENA** > Antzuolako ipar-ekialdean kokatzen da Irimoegigoena auzoa; Deskargara bidean. Malda handiak dituen auzoa da. Gaur egun, gazte asko joan da auzora bizi izatera, eta hori dela-eta biziberritu egin da Irimoegigoena.



Jon Aranguren, eta atzealdean Irimoegigoena auzoa. A.E.

**Jon Aranguren** > Irimoegigoenako auzo-alkatea

# "Antzuolako beste auzoetan gertatzen den moduan, saneamendua da arazoa"

ARANTZAZU EZKIBEL > ANTZUOLA

**Otamendi baserrikoa da Jon Aranguren auzo-alkatea. Antzuolan beste auzoekin gertatzen den moduan, arazo nagusia saneamendua dela azaldu du Arangurenek. Bestalde, auzoko eliza da gaur egun Antzuolako eliza nagusia, parrokian obretan dabiltzan bitartean.**

**Baserri askotan gazteak bizi direla diozu. Auzoa osasuntsu dagoen seinale?**

Bai, auzoan gazteak geratzen hasi dira. Kaleko etxebizitzen prezioengatik-edo izango da, baina gazte askok baserrian obra egin eta baserrian bizi izatea aukeratu dugu.

**Zenbat baserri daude auzoan eta zein da biztanle kopurua?**

Ba, 20 baserri inguru izango gara; eta biztanleak, ostera, 50. Ume gero eta gehiago daude.

Baserri batzuek, Irimo tontorretik beste aldera geratzen direnek Azkoiti aldera egiten dute bizimodua, ez Antzuolan. Hara dute irteera.

**Arazo nagusia zein da Irimoegigoenan?**

Nik uste dut, Antzuolako beste auzoetan gertatzen den moduan, saneamendua dela arazo nagusia. Oraindik egin barik dago baserrietako saneamendua; bere garaian, hobi septikoak egin ziren, eta horiek ditugu. Baina zahar geratu dira, mantetze barik. Kaleko baserriek badute herriko saneamendua.

Udan, baserri batzuetan urarekin izaten dugu arazoa, baina arazo puntuala izaten da.

**Ura eta saneamendua sartzeko proiektua egin zen bere garaian. Nola dago?**

Proiektua aurrera eramateko diru asko behar da, eta momentu honetan ez dago dirurik. Gainera, kuota bidez funtzionatuko luke proiektuak, eta baserritar guztiak ez daude ados kuota horiek ordaintzearekin. Hala ere, azkeneko kontua da lehenengo fasea laster egingo dutela, diru bat horretarako gordeta dago-eta.

**Urtean behin auzo-lanean txukuntzen dituzue errepideak.**

Iralarainoko zatia Diputazioarena da; eta bide zati hori ondo dago. Bestalde, urtean behin garbitzen dituzte beste bideak parte dutenen artean. Asko erabiltzen da goiko elkartera doan bidea; hortaz, komeni da garbi izatea.

**Auzoko eliza orain herriko eliza moduan erabiltzen da.**

Bai, parrokian obretan dabiltzan bitartean Antiguako ermitan esaten dira mezak.

**Noiz ospatzen dituzue jaiak auzoan?**

Ez dugu jairik ospatzen auzoan. Jaizaleak bagara, baina ez daukagu jairik hemen! Andre Mari eguna, abuztuan, da jaieguna: meza egiten dute, eta luncha. Bestalde, garai baten martxoaren 1ean, Aingeru Guardako egunean meza esaten zen –baserritarrek ordainduta–; eta, baita San Anton egunean eta Pazko egunean ere. Baina ohitura horiek galduta daude.

**Trenaren ibilbide zaharrean ibiltzen da jendea.**

Bai; batez ere, uda partean ibiltzen da jende asko. Trenbide zaharrak auzo guztia zeharkatzen du; Bergaratik dator eta Basalde auzora doa. Hor ibiltzen da jendea oinez, baina tunel bat itxita dago eta puntu baten herrira jaitsi behar da bidearekin jarraitzeko. Aurrera begira proiektua dago bidegorri sarean sartzeko trenbide zati hori.

**"Auzoan ez dugu jairik ospatzen, Andre Mari eguna den arren jaieguna"**

**"Auzoa zeharkatzen duen trenbide zaharrean ibiltzen da jende asko; batez ere, uda partean"**

Goiena kluba
Abantailaz betetako kluba!
OTSAILEKO ZOZKETA
Telefonoa: 943 25 05 05
e-posta: kluba@goiena.com
Kuota: 45 euro

ESAIT-EKO TERMIKO BERDEA ETA BISERA
ESAIT-eko termiko berdea eta bisera
esait
IRABAZLEA
Urri Urizar
Aretxabaleta

UMEENTZAKO PUZZLEAK
Ikastolen Elkarteko umeentzako puzzleak.
Ikastolen Elkartea
IRABAZLEA
Amaia Ugarte Bolivar
Aramaio

SASKIBALOIRAKO SARRERAK
Lagun Aroren partidurako sarrerak.
IRABAZLEA
Miguel Angel Elkoroberezibar
Donostia

EUSKAL SELEKZIOKO ZIRA
Lagun Aroren partidurako sarrerak.
EKFB
IRABAZLEA
Iñaki Elortza Garro
Arrasate

OREKA TX ENTZUTEKO SARRERAK
Espaloian Oreka TX entzuteko sarrerak
Elgetako Espaloia kafe antzokia
IRABAZLEA
Maria Jesus Ramirez Telleria
Antzuola

SARI NAGUSIA
URTARRILA-MARTXOA
PARTE-HARTZAILE GUZTIEN ARTEAN ZOZKETATUKO DA
JOCCA RACLETTE

• Grill-plantxa estaldura itsasgaitzarekin eta ateragarria, erraz garbitzeko.
• Ez du oliorik behar.

SMSaren kostua: 0,15 euro + BEZa mezu bakoitzeko.
Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestionatzea. Eskubidea izango duzu datuotan sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezeztatzeko, helbide honetara idatzita: *kluba@goiena.com*

Fiare proiektua ezagutarazten dihardu Alberto Minguezek, banku etikoaren bilakaera aurreratzea da haren eginbeharra. Fiare inbertsio eta aurrezte arduratsuaren aldeko fundazioa da, 2003an sortua. Proiektuak diruaren eta jarduera ekonomikoaren balio soziala berreskuratu gura du, "dirua eta ekonomia mundu zuzenago, gizatiarrago eta bideragarriagoaren" zerbitzuan jarriz.

**Alberto Minguez** > Fiare banku etikoko kidea

# "Krisiak antolatzeko beharra erakutsi digu, alternatibak sortu behar ditugula"

JOKIN BEREZIARTUA > OÑATI

**2005ean murgildu zen Alberto Minguez (Bilbo, 1975) Fiare proiektuan. Aurretik Fiare fundazioaren kolaboratzaile ziren ekonomia sozial eta solidarioetan oinarritutako beste ekimen batzuetan parte hartu izan du, eta hortik ezagutzen zuen proiektua. Joan den eguenean ETEOn egin zuen hitzaldia: *Finantza etikoak: txanponaren beste aldea*. Hitzaldiak luze jo zuen, bertaratutakoek hainbat galdera egin zituzten-eta. Pozik agertu zen Minguez hitzaldiaren ostean, piztutako interesagatik.**



Alberto Minguez, Fiare fundazioaren azken idazkia eskuan duela, Oñatin hitzaldia egin ondoren Arrasaten ateratako argazkian. J.B.

**Zer dira finantza etikoak?**

Aspaldi sortu ziren beste ekonomia baten aldeko apustua egiten zuten errealitate ekonomikoak. Errealitate horietan irabaziak ez dira garrantzitsuena eta mozkinak gizartearen ongizatera daude bideratuta.

Finantza etikoen barruan kokatzen dira finantza alternatibo moduan ere ezagutzen direnak; hots, diruaren erabilerari osagai soziala ematea helburu dutenak. Bestalde, banku etikoak daude.

**Zein da zuek aldarrikatzen duzuen banku eredua?**

Banku etikoa defendatzen dugu, baina banku etikoak modu ezberdinetan uler daitezke.

Fiarek defendatzen duen banku etikoan egungo banku sisteman sartuz sozialki arduratsua izango den alternatiba eskaintzea da asmoa. Urrats hori egin gura dugu beste sistema ekonomiko bat posible dela uste duten pertsona eta erakundeekin.

***Finantza etikoak: txanponaren beste aldea* izan zen eguenean egin zenuen hitzaldiaren izenburua. Zein da, bada, txanponaren beste aldea?**

*Txanponaren beste aldea* deritzon ekimenak egungo banku sistemaren akatsak azaleratu gura ditu. Hau da, irabazi ekonomikoen aldeko apustua bakarrik egiten duen sistemaren hutsuneak ezagutarazi gura ditugu. Izan ere, banku etikoek jarduera ekonomikoen helburu ez-ekonomikoak aintzat hartzea, indartzea eta zaintzea bilatzen dute.

Finean, diruaren eta jarduera ekonomikoaren balio soziala berreskuratzea da gure helburua, mundu zuzenago, gizatiarrago eta bideragarriagorako bide luzea gero eta motzagoa izan dadin.

**Irabazi asmorik ez eta guztion interesa defendatzen duzue, beraz.**

Errentagarritasunari buruz dugun ikuspegiak finantzen eta bankaren eremuan normalean erabiltzen dena ordezkatu gura du. Egia da proiektuek benetan bideragarriak eta iraunkorrak izan behar dutela, baina gure helburuak ez dira errentagarritasuna eta onura ekonomikoa.

Bestalde, Fiareren balio nagusietako bat da kredituaren bidez gizartea eraberritzea eta pertsonak gizarteratzea. Hala, honakoak dira gure lanaren lehentasunak: garapenerako lankidetza, baztertuta dauden pertsonen gizarteratzea, ingurumenaren iraunkortasuna eta kooperatibismoa.

**Zuen ikuspuntutik begiratuz, zein da egungo krisiak sistema ekonomikoan duen eragina?**

Gizarte bazterketa handitu egin du krisiak, baina beste ondorio bat ere utzi digu: antolatzea beharrezkoa dela erakutsi digu, alternatiba ekonomikoak sortu behar ditugula. Hau da, krisiak argi utzi du ezinbestekoa dela alternatiba ekonomiko sozial eta solidarioak bultzatzea.

BANKU EREDUA

**"Defendatzen dugun banku etikoak egungo sistematik alternatiba soziala eskaini gura du"**

HUTSUNEAK AZALERATU

**"Irabazien aldeko apustua bakarrik egiten duten jarduera ekonomikoen akatsak azaleratu nahi ditugu "**

ELKARLANA

**"Gizartea eraldatzeko lan egiten dutenei finantza tresna bat eraikitzea da gure asmoa"**

**Eta alternatiba horien barruan kokatzen da Fiare.**

Hala da. Azken finean, pertsona guztiendako finantza tresna bat eraikitzen parte hartu gura dugu, tresna horren bidez gure ahaleginak gizartea eraldatzeko lan egiten duten pertsona eta erakundeengana bideratzeko asmoz.

Hala, tresna horrek herritar aktiboen eskuetan egon behar duela uste dugu, horrela euren aurrezkiak berreskuratu eta helburu soziala duten proiektu eta jardueretara zuzendu ahalko dituzte-eta. Bi hitzetan: herritarren eskura egongo den bankua izan nahi dugu.

**Nola har daiteke parte Fiaren?**

Proiektuan laguntzeko eta Fiare banku etikoaren abantailez gozatzeko hiru modu daude: sustatzaile, laguntzaile edo boluntario moduan sar daiteke fundazioan.

Sustatzaile izango direnek bazkide egin behar dute; hau da, proiektua sustatzen eta eraikitzen arduratu egin behar dute, horri denbora eskaini behar zaio. Gainera, diru ekarpena ere egin behar dute.

Laguntzaile moduan sartzen denaren profila da kreditu kooperatiban parte hartu nahi duena baina oraindik ere bazkide sustatzailea izateak dakarren konpromisoa bere gain hartzeko moduan ez dagoena. Pertsona fisikoek 300 eurotik gorako ekarpenak egin behar dituzte eta pertsona juridikoek, berriz, 600 eurotik gorakoak. Eta azkenik, kapital ekarpenik egin ezin dezaketenek boluntario moduan lagun dezakete. Gurea bezalako proiektu batentzat kapilaritatea funtsezkoa da. Bide luzea dugu aurretik eta prisa barik egin nahi dugu. Hori bai, merezi duten bidelagunekin batera.

# Atera etekina txartelari!

Abantailaz betetako kluba!

Goiena kluba




## Abantailak

- Goienkaria astelehenetan eta ostiraletan etxeko postontzian jasotzea
- Goienak antolatutako ekitaldi eta ikastaroetan prezio berezia
- Goienak kaleratzen dituen produktuetan prezio berezia: DVD kopiak, CDak, kamisetak, Goienkaria-ko Sailkatuak, eskelak, ekitaldietarako sarrerak... eta orain, opari eta deskontu paregabeak lortu ditugu zuretzat

**Eta gainera, Goiena Klubeko zozketetan parte hartzeko aukera izango duzu.**

## Deskontu bereziak

LILURA EDERTZE INSTITUTUA

**BERGARA (Bazkidearentzat eta lagunarentzat)**
- Laser depilazioa: hanka osoa + izterrondoa **-%15** + opari besapekoak (axilak).
- -%20 elikagai-intolerantzia proban.
- -%10 mikropigmentazioan: begietan, ezpainetan edo bekainetan.
- -%10 fototerapia bidezko aknearentzako tratamenduan.

RENAULT AUTOBERRI

**ARRASATE/AZPEITIA/ELGOIBAR/IRUN/TOLOSA**
- **-%5** konponketetan, ez bada prezio itxia edo promozioa.
- **-%25** saltzen ditugun pneumatikoetan, urte osoan.
- Ordezkapeneko autoa 20 euro.
- Erosketetaren momentuan, goian aipatutako deskontua baino handiagoa badago, bezeroari deskontu handiena eskainiko diogu.

IKER SUKALDEAK

**ARRASATE/OÑATI**
- Sukalde osoa erosita, etxetresna elektriko bat opari.

Barceló Bidaiak

**BERGARA/ARRASATE**
- **-%5** pakete konbinatuetan 600 eurotik gorako erosketagatik (eskaintza berezietan izan ezik).

ESTACIÓN DE SERVICIO ARRASATE (MECA) AVIA

**ESTACIÓN DE SERVICIO ARRASATE (MECA)**
**ARRASATE**
- **-%2** gasolindegian erregaia erosita.
- **-%2** dendako produktuetan.

MONDRAGON LINGUA

**ARRASATE /OÑATI (18 urtetik gorakoentzako bazkideentzat)**
- **-%15** ingeleseko eta euskarazko ikastaroetan, SISTEMA KONBINATUAN. Ikasturte osoan.
- **-%15** aurrez aurreko eskoletan.
  Eskaintzaren epemuga: 2010/03/01

naren FISIOTERAPIA ZENTROA

**ARETXABALETA**
- **-%15** zerbitzu guztietan.

CLINICA DENTAL BERGARA

**CLINICA DENTAL BERGARA**
**BERGARA (Bazkidearentzat eta familiako batentzat)**
- **-%10** zerbitzu guztietan
- **-%15** inplanteetan.
- 120 eurotik gorako tratamenduetan garbiketa doan.

TXURI-URDIN Donostia

**DONOSTIA**
- Bi erosi eta bat ordaindu ostiraletan, ez bada jaiegun, jaiegun bezpera, zubia edo oporraldia.
- **-%20** larunbatetan eta igandeetan, ez bada zubia edo oporraldia.
- **-%10** zubi eta oporraldietan.

AQUARIUM DONOSTIA-SAN SEBASTIAN

**DONOSTIA**
- Bi erosi bat ordaindu (sarrera garestiena ordainduko da).

LARRAÑAGA AUTOESKOLA

**BERGARA**
- **-%15** inskripzioa ordaintzean.

ZIENTZIAREN KUTXAGUNEA KUTXAESPACIO DE LA CIENCIA

**DONOSTIA**
- Bi erosi eta bat ordaindu (sarrera garestiena ordainduko da).

**Enpresendako: Zure enpresa Goiena Klubean eskaini nahi baduzu jarri gurekin harremanetan.**

**Telefonoa: 943 25 05 05 | Posta-e: *kluba@goiena.com***

## kale inkesta

# Madrilgo Senatuak behin betirako onartu du Abortuaren legea; zer pentsatzen zaizu?



**Juan Mari Encinas**
Langilea
Lasarte

Nire ustez 16 urterekin gazteegiak dira halako zerbait erabakitzeko. Gurasoekin berba egin beharko lukete eta eurek erabaki. 16 urte bete behar dituen semea dut eta ez dut heldua ikusten halako zerbaitetarako.



**Maria Angeles Garcia**
Langilea
Arrasate

Bakoitzaren egoeren arabera, logikoa pentsatzen zait abortatzea. Egoera txarrean ez dagoenak pentsa lezake umea ekartzea, baina bestela… Niri gustatuko litzaidake alabak esango balit, baina erabakia berarena da.



**Irritte Pagoaga**
Langilea
Arrasate

Niri oso ondo iruditzen zait. Bakoitza da bere gorputzaren jabe. Eta gazteen adinarekin sortu den polemika delaeta, uste dut 16 urterekin dagoeneko gai badirela halako erabaki bat hartzeko.



**Maixol Alonso**
Langilea
Oñati

Ondo. Ordua da, gainera, emakumeak berak erabakitzeko; bestalde, akaso gazteegiak dira 16 urterekin eta laguntza behar dute. Etxean kontsultatu beharko lukete, nahiz eta gero eurek erabaki; zaila da nagusiendako…

## zorroztailea



**Joxemari Muxika**

# Debagoieneko garraio beharrak

"2016a AHTa martxan jartzeko zentzuzko data izan daitekeela uste du Iñaki Arriola Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza, Garraio eta Herrilan sailburuak, eta orduko Bilbo, Donostia eta Gasteiz lotuta egotea espero du, egitasmoa oso konplexua izan arren".

Berria > 2010-02-25


Bi mendizale nafarrak bilatzeko lanak eperik gabe eten dituzte eguraldia dela eta

AHTa 2016an martxan egon daitekeela uste dute

Debagoieneko enpresetako ekoizpenak munduko hainbat lekutara eramateko eta hauek osatzeko hornidurak ekartzeko bideak behar dira. Hori ez dago zalantzan jartzerik, erabakiak hartu behar dira. Izan ere Debagoieneko ekoizpenaren %98 eskualdetik kanpo saltzen da eta %70 Euskal Herritik kanpo. Eskualdean ekoizten den guzti horren %60tik gora kanpotik ekarritako osagaiak dira, beraz kamioi asko bideetan.

Abiadura Handiko Trenari buruz erabakita dagoen planak Bilbo, Gasteiz eta Donostia bakarrik lotzen ditu. Hiriburu horietatik urrutirago iristeko ezer egingo den eta noiz egingo litzatekeen ez dakitela dirudi gobernuetako politikariek ere.

Merkantzien garraiorako konponbide bezala eraikitzen ari diren trenbideak gaur bezain urrun utziko ditu karga-deskargarako plataforma guztiak, eta orain bezalaxe kamioietan garraiatu beharko dira. Hortaz, egiten ari denak oraingoz Debagoieneko merkantzien garraiorako ezer gutxi dakar.

Eta pertsonen garraioa? Lantokira bidean bakarrik Debagoienean 40 mila pertsonatik gora dabiltza bideetan hara eta hona. Gehienak bertan bizi badira ere, ez daude lantokietatik hain gertu, eta %90ak garraiobide indibiduala erabiltzen du, auto bat pertsona bakarrarekin.

> **"Garraio beharrari aterabidea emateko Debagoieneko Mankomunitateak arazoaren konponbidea bere gain hartu beharko lukeela uste dut, inoren zain egon gabe"**

Eraikitzen ari diren Abiadura Handiko Tren honek ez digu debagoiendarroi joan etorrietarako aukerarik ematen eta hiriburuetara joateko ere ez digu balio. Beraz ze errentabilitate sozial eta ekonomiko dakar ditxosozko AHT horrek? Norentzako? Inork ba al daki?

Zein dira debagoiendarrok garraiorako ditugun alternatibak? Autoa konpartitzea bakarrik? Horretarako ez da politikarien beharrik. Zertan da garraio publikoa? Tranbia ez dela jarriko irakurri dut. Autobus zerbitzua egokitzeak ekar omen dezake gure joan etorrietarako erantzuna. Egin bedi.

Garraio beharrari aterabidea emateko Debagoieneko Mankomunitateak arazoaren konponbidea bere gain hartu beharko lukeela uste dut inoren zain egon gabe.

## irakurlearen txokoa

# 943 25 05 05

goienkaria@goiena.com

ARETXABALETA

**> Pozik zinemak duen arrakastarekin eta eskaintzarekin**

Azkenaldian, Aretxabaletan zinema emanaldiek "sekulako arrakasta" dutela kontatu du irakurle batek. Celda 211 filma ikusten egon zenean aretoa bete-beteta zegoela, eta umeendako emanaldietan ere gauza bera gertatzen dela. "Pelikula berriak aukeratzen dituzte eta horregatik izango dela pentsatzen dut. Eskertzen da herrian halako zerbitzua izatea!", gaineratu du, gustura.

BERGARA

**> Santalaitz kalean beti daude zuloak errepidean**

"Gutxitan ibiltzen naiz automobilarekin Bergaran, baina etortzen naizen bakoitzean aurkitzen ditut zuloak ITV pareko biribilgunearen inguruan". Horixe adierazi du irakurle batek. Gaineratu du beti ez direla "zulo berak", baina datorren bakoitzean aurkitzen duela zuloren bat. Horrekin batera gaineratu du "Bergaran beti" daudela automobilak txarto aparkatuta, "ondo aparkatuta daudenei traba egiten".

ARRASATE

**> Txakur-kakekin arazo handiak daude herrian**

Arrasatear batek kontatu du herri erdian sarri txakur-kakak tokatu izaten zaizkiola, eta kontuan hartuta herrian txakurrendako zerbitzu bereziak daudela ez duela "ulertzen" txakur-jabeen aldetik jarrera hori izatea. "Isunak ipiniko nituzke", dio.

## usteak uste

**Ubane Madera**

# Eskerrak alerta ezarri izanari

Eguraldi bortitzen abisuen aurrean agintariek badazpadako neurriak ezartzen dituztenean, normalean kritikatu egiten ditugu: larregikoak izan direla, herritarrak alperrik izutzen ibili direla… Oraingo haizealdi honekin ere halaxe gertatu da, eta askok ez dituzte ondo ikusi zapatuan ezarri zituzten neurri eta aginduak.

Oraingo honetan, baina, asmatu egin dutela esango nuke. Egia da ez dela ezer larririk gertatu (AP1 autobidean izandako istripua izan ezik). Baina egia da, baita ere, gauza asko bota dituela haizealdiak: teilak, hesiak, jarlekuak…

Eta alerta gorriari kasu eginez etxean geratu edo errepidera atera ez diren herritar horiek kalean edo automobilarekin harrapatuko balitu, edo kirol txapelketak bere horretan egingo balira, istripu larri asko gertatu izango ziren. Begira bestela Frantzia.

ASTELEHENEKO Goienkaria

**Argitaratzailea** Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkartea • E05 Basabe Poligonooa • 20550 ARETXABALETA
**Lehendakaria** Estepan Plazaola **Zuzendari nagusia** Inazio Arregi

**Zuzendaria** Eneko Azkarate **Erredaktore burua** Monika Belastegi
**Asteburuko erredakzioaren arduraduna** Ubane Madera **Erredakzioa** Mireia Bikuña, Maider Arregi, Arritxu Barruso
**Oinarrizko diseinua** Goio Arana **Diseinu arduraduna** Iñaki Iturbe **Maketazioa** Kepa Martelo **Publizitate arduraduna** Mireia Larrañaga **Harpidetza eta banaketa** Marta Leturia **Administrazio arduraduna** Agurtzane Gaintzarain

**EGOITZA NAGUSIA**
**BERGARA** 20570 Barrenkalea 33 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12
Posta-e: goienkaria@goiena.com

**ORDEZKARITZAK**
**ARRASATE** 20500 Otalora Lizentziaduna 31 • 132 posta-kutxa • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 00
Posta-e: arrasate@goiena.com
**ARETXABALETA** 20550 Durana 11 • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxabaleta@goiena.com

**Publizitatea** Aretxabaleta 20550 E05 Basabe Poligonoa • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 09
Posta-e: publi@goiena.com

**Harpidetza** Aretxabaleta 20550 E05 Basabe Poligonoa • Tel.: 943 08 10 50 • Posta-e: harpidetza@goiena.com

**Lege Gordailua:** SS-0088/04 • **ISSN:** 1697 3542 • **Tirada:** 5.000 ale • **Difusioa:** 4.383 ale

Goiena Komunikazio Zerbitzuak

ASTELEHENEKO GOIENKARIAk ez du bere gain hartzen IRITZIA orrialdean edo kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria

Gipuzkoako Foru Aldundia

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria

# Herriak

**Arrasate** > 14 **Bergara** > 16 **Oñati**> 18 **Aretxabaleta** > 19 **Eskoriatza** > 19
**Antzuola** > 20 **Aramaio** > 20 **Elgeta** > 20 **Leintz Gatzaga** > 20



**> ARRASATE**
Musakolako kiroldegia sendotzeko obrak E planarekin finantzatuko dituzte **> 14**



**> OÑATI**
2009an 616 isun jarri zituen Udaltzaingoak, 2008an baino 296 isun gutxiago **> 18**



**> ARAMAIO**
Kultura eta kirol taldeendako 18.500 euro bideratuko ditu Aramaioko udalak **> 18**

**OÑATI** > NEKAZARITZA

# Azoka txikia plazako frontoi ingurura hurbiltzea aztertzen ari da Udala

**TOKI ALDATZEA**
Baserritarren zapatuetako azoka indartu nahi du Oñatiko Udalak

**ORDENANTZA**
Baserritarrei azokara joatearren dirulaguntzak emateko legea lantzen ari dira

**ARRITXU BARRUSO** > OÑATI

Oñatiko zapatuetako baserritarren azokara joaten diren nekazariek behin eta berriz eskatu izan dute Santa Marinan egiten den azoka txikia plaza ingurura ekartzea. Argi dagoena da baserritarren azokak indarra galdu duela azken urteetan; hori horrela, uste dute bi azokak toki berean elkartuz gero jende gehiago hurbilduko dela. "Sasoi batean *merkadilloa* herriko plaza ondoan egiten zen eta jende gehiago ibiltzen zen. Azokak beste berotasun bat zeukan. Azken urteetan asko hoztu da zapatuetako azoka", azaldu digu Urbieta baserriko Nieves Izurrategik.

**AUKERA DESBERDINAK AZTERTZEN**

Oñatiko Udala baserritarren eskaria aztertzen ari da eta eperik zehaztu ez duten arren, asmoa da herriko nekazariei kasu eginez Santa Marinako azoka txikia plaza ingurura ekartzea. "Badakigu Santa Marinako azoka plaza ingurura ekartzeak asko indartuko lukeela baserritarren azoka, eta horretarako aukerak aztertzen ari gara. Neurketak egiten ari gara toki aproposena zein izan daitekeen ikusteko", adierazi digu Lourdes Idoiaga alkateak. Aukera posibleen artean daude plazako frontoia eta pareko aparkalekua edo Bidebarrieta kalea.

**SALTZAILE GEHIAGO EZ**

Lourdes Idoiaga alkateak, dena dela, argi utzi nahi izan du azoka txikia tokiz aldatzen badute ere, gaur egungo saltzaile kopurua mantendu egingo dutela: "Oso pozik gaude gaur egun Santa Marinara etortzen diren saltzaileekin; kalitatezko produktua eskaintzen dute eta oso serioak dira lanean. Gainera, saltzaile edo postu gehiago ipintzea kaltegarria izan daiteke herriko merkatari txikiendako eta ez dugu horrelakorik nahi."

**UDAL ORDENANTZA BERRIA**

Dena dela, aurrekoa ez da Udalak zapatuetako baserritarren azoka indartzeko hartuko duen neurri bakarra. Udal ordenantza bat lantzen ari dira azokara doazen baserritarrei dirulaguntzak emateko. "Badakigu zapatuero herriko plazan egotea oso gogorra dela eta horretan lagundu nahi dugu ordenantza honekin. Bestetik, konturatzen gara Oñatin badagoela nekazaritza ustiaketa bat, baduela indarra, eta tamalez produktu asko oparitara joaten dira edo herriko beste denda batzuetan saltzen dira. Salmenta zuzenik ez dago apenas eta azken finean salmenta zuzenetik ateratzen dute diru gehien baserritarrek. Gainera, gaur egungo egoera ekonomikoa ikusita, eta langabeziaren datuak ikusita, uste dugu sor daitekeela aktibitate ekonomiko txiki bat neurri honekin", azaldu du alkateak.

Baserritarrek ondo hartu dute berria baina badituzte zalantzak: "Oso ondo iruditzen zait neurria baina, zapatuero plazan egotea oso gogorra da eta ez dakit laguntza horiekin lortuko den baserritar gehiago etortzea", dio Nieves Izurrategik.

Udal ordenantza lantzen ari dira oraindik eta asmoa da apirila inguruan onartzea. Dena dela, legea atzera eraginkorra izango da beraz, baserritarrak urte hasieratik jasoko dituzte laguntzak. 2010eko aurrekontutik 15.000 euro bideratu ditu Udalak dirulaguntza horietara.

Oñatin urtean 51 zapatutan egiten da baserritarren azoka. Dirulaguntza joandako egunen eta eskainitako produktu kopuruen araberakoak izango dela iragarri du alkateak.



Santa Anako merkatu txikia. JOSETXO ARANTZABAL.



Baserritarren azoka herriko plazan egiten da zapatuero. JOSETXO ARANTZABAL

ESANAK

**"Azoka txikia tokiz aldatu arren merkatari kopurua ez dugu handituko; horrek kalte egin diezaioke merkatari txikiei"**

**Lourdes Idoiaga** > Alkatea

**"Behin baino gehiagotan egin dugu eskaera hori; azoka txikia plaza inguruan eginda jende gehiago ibiliko litzateke"**

**Nieves Izurrategi** > Baserritarra

DATUA

**15.000**

**EURO**

2010eko udal aurrekontutik 15.000 euro bideratuko dira baserritarren azoka indartzeko sortuko duten ordenantzaren dirulaguntzetara.

**BERGARA** > ZUHAITZ AZOKA

# Zuhaitz Egunik ez, baina zuhaitz azoka egin zuten



Emeterio Elkoroberezibar, gaztainondoak eskuetan dituela. U.M.



Aginagalde-Usurbildik etorri ziren Imanol Aranburu eta koinatua. U.M.



Goizean goizetik animatu ziren herritarrak azokan buelta ematera. U.M.

## Zuhaitz azokan 16 bat saltzaile elkartu ziren Bergaran; Zuhaitz Eguna, berriz, atzeratu egin zuten

**UBANE MADERA** > BERGARA

Haizealdiaren aurreko tartea aprobetxatu, eta San Martin eta Munibe plazetan lore, landara eta zuhaixkekin azoka egin zuten zapatu goizean. Aginagatik ekarri zituen, esaterako, Imanol Aranburuk mimosa, zitriko eta batez ere, lore ugari eta zuhaixkak.

Tafallako (Nafarroa) ordezkaritza ere izan zen, batez ere, zuhaixkatxoen eskaintzarekin.

Eta jakina, kanpokoen artean, etxekoak ere izan ziren bertako produktuekin, esaterako, Oñatitik Antonena baserriko lore mordoska eraman zituzten.

**GAZTAINONDO BEREZIAK**

Zubikoa mintegiko (Bergara) Emeterio Elkoroberezibarrek ekarri zituenen artean (basorako zein etxerako landareak eta fruta-arbolak), berriz, zuhaitz mota berezia zuen: gurean gaztaina ezkutatzera eraman duen ezkabia gaixotasunak kaltetzen ez duen gaztainondo mota. "Galizian atera dute barietate berezi hau, eta gure helburua da lehengo gaztainondoak berreskuratu", kontatu du. Horrez gain, Bergara bertako pikondoak ere bazituen, besteak beste, "bertako arrazakoak", gaineratu du.

ARETXABALETAKO ARDO BIRA
Martxoaren 3tik aurrera.
Parte hartu Aretxabaletako ardo biran
Asteazkenetan arratsaldeko 6etatik 9etara
Anima zaitez!


Alcorta Kriantza
+ Tapa
1€
ARDO BIRAREN TABERNAK
Paulaner
Artano
Taberna-Berri
Gurea
Iosu
Arlutz
Orly
Txakoli




Pedro Obregon flamenko-abeslaria, zapatuan. JOSETXO ARANTZABAL



Sueños de Andalucia dantzari taldea emanaldian. JOSETXO ARANTZABAL



Sevillana maratoia egin zuten domekan elkartean. JOSETXO ARANTZABAL

**ARRASATE** > ANDALUZIA EGUNA

# Jaia, gastronomia eta folklorea atzo, Andaluzia egunean

140 lagun batu da asteburuan Al-Andalus elkarteak antolatutako Andaluzia egunean

**MIREN ARREGI** > ARRASATE

Andaluzia eguna izan zen atzo. Hori horrela, Andaluzian ez ezik, Arrasaten ere sekulako jaia egin dute asteburuan, Al-Andalus elkarteak antolatuta. Zapatuan hasi zituzten ospakizunak, arrasaldeko zortzietan, elkarteko Sueños de Andalucia dantza taldearen emanaldiarekin. Ondoren, Kordobako flamenko-kantari bat entzuteko aukera izan zuten; Pedro Obregon kantaria Jose Mari Ramirez Barakaldoko gitarra-jotzailearekin igo zen agertokira. Espontaneorik ere egon zen, izan ere flamenko-dantzari bat animatu zen emanaldian dantza egitera. Giro ederrean pasatu zuten zapatuan jaia, baina, elkarteko kide Rafa Gomezek esan zigun, haizealdiaren ondorioz, espero baino jende gutxiago agertu zela.

**ATZO, JAIAK AURRERA**

Atzo jarraitu zuten ospakizunekin, eta aipatzekoa, eguerdian egin zuten sevillana maratoia: 22 bikotek hartu zuten parte. Bost segundo dantza egin gabe egiten zuen bikotea edota maratoia seriotasunez hartzen ez zutenek lehiaketatik kanporatzea zen asmoa, baina, bikote bat bera ere ez zuten kanporatu. Guztiek, eman zuten maratoiak iraun zuen ordu osoa dantzan. Ondoren, Andaluziako ereserkia abestu zuten Al-Andaluseko abesbatzak eta Alegria de la Sierra taldeek.

**ARRASATE** > 'ERDIGUNEA PIZTU!' EKIMENA

# Neska-mutiko ugari ping-pong eta futbol-mahai jokoetan

Ping-pong eta futbol-mahai txapelketek nerabe ugari erakarri zuten Atzo Kulturatera. Erdigunea pizteko planaren barruan egin zituzten jolasok



Mahai-futbol txapelketan atzo, Kulturaten. JOSETXO ARANTZABAL

**M.A** > ARRASATE

*Erdigunea Piztu!* ekimenaren baitan eskaintza berezia izan zen atzo Arrasaten. Txatxilipurdik eta Arrasateko Udal Gazte Sailak elkarlanean, aisialdi proposamen ezohikoa eskaini zien 12 eta 17 urte bitarteko neska-mutikoei.

Ekimen horren barruan Arrasaten egiten duten hirugarren ekitaldia izan zen atzokoa; aurretik, altxorraren bila eta Mihiluze txapelketa egin zituzten eta biek ala biek izan zuten itzelezko arrakasta, jende mordoak hartu baitzuen parte. Atzo, berriz, ping-pong eta mahai-futboleko txapelketak antolatu zituzten; eta baita herritarrak animatu ere! Guztira Kulturaten 40 lagun inguru batu ziren, parte hartzaile eta ikusleen artean.

Nesken parte hartzea bultzatu guran txapelketa mistoa ez ezik, neskendako txapelketa ere antolatu zuten, bai ping-pongean eta baita mahai-futbolean ere. Ping-pongean egitera, baina, neska gutxi animatu zirela-eta, mistoa bakarrik egin zuten. Guztira hiru ping-pong mahai ipini zituzten Kulturate barruan, eta lau futbol-mahai, kanpoan. Musika ere izan zuten, hala, DJ Pottoko aritu zen musikaz giroa alaitzen.

**ERDIGUNEA PIZTEA HELBURU**

Arrasaten dauden gazte txokoak periferiatan daudela-eta, erdiguneari bizitasuna eman eta aisialdi eskaintza zabaltzea da helburua.




JOSETXO ARANTZABAL

**BERGARA** > AZOKA

# Neguko azken aukerak, kalean

Gustura ikusi genituen bergararrak eta bergararrak ez zirenak Bedelkarrek antolatutako beherapenen azoka berezian, egubakoitz eta zapatuan. Saltokiek kalera atera zituzten esekitokiak, zapatuan egubakoitzean baino apur bat babeserago, haizearengatik. Baina bestelako oztoporik ez zuten izan dendako neguko azken arrastoak saldu ahal izateko. Prezio interesgarriak, eskaintza politak eta orotariko aukerak parean zituztela, erosleek krisia ahaztu egin zuten apurtxo batez.

**OBRAK** > 2010EKO E PLANA

# Igerilekuaren eta udal sarearen obrak, E Plana erabilita

Gelmako etxeetatik Nafarroa etorbiderainoko oinezkoen bidearen proiektuaren gaineko erantzuna da orain falta dena

**UBANE MADERA** > ARRASATE

E Planak finantzatuko ditu Musakolako kiroldegiko egitura sendotzeko obra eta Udalarenak diren eraikinak sare bidez konektatzeko lanak. Hala jakinarazi zioten joan den astean Arrasateko Udalari. 2010eko E Planera hiru proiektu aurkeztu zituen Udalak eta bik baiezkoa jaso dute, beraz.

Orain, bada, proiektuok idatzi eta ahalik eta lasterren adjudikatzeko pausoak emango ditu Udalak, komeni da-eta lehenbailehen hastea obrak; izan ere, iaz moduan, aurten ere E Planaren baldintza da urtea bukatu baino lehen amaitzea obrak. Udaletik jakinarazitakoaren arabera, helburua da gaurko Udal Gobernuaren batzarrean abiaraztea prozedura burokratiko hori.

**MILIOI BAT EURO PASA**

Musakolako kiroldegiko obrari dagokionez, hori da Udalak egin gura duen lanik handiena, edo bai garestiena, behintzat. Batez ere bi puntutan egingo dituzte egitura sendotzeko obrak: barruko igerilekuaren azpiko sotoan eta kantxa polideportiboaren estalkian. Egitura sendotzeaz gainera, igerileku handia iragazgaizteko obrak ere egin gura dituzte.

Udalak kalkulatu du 1.170.000 euroko inbertsioa eta bost bat hilabeteko epea beharko duela obretarako. Maiatz-ekain inguruan hasi gura dute, udako denboraldia denez erabiltzaileei ahalik eta eragozpen gutxien eragiteko; izan ere, besteak beste, barruko igerilekua itxi egin beharko dute.



Barruko igerilekua itxi egin beharko dute obra egin artean; bitartean ohiko ekimenak egiten segituko dute. GOIENKARIA

OINEZKOENDAKO PASEALEKU BERRIA

## Gelma-Nafarroa etorbidea oinez egiteko bidea

Aurtengo E Planerako Udalak aurkeztu duen hirugarren proiektua da Gelmako etxeetatik Nafarroa etorbiderainoko oinezkoendako pasealekua. Hori ere ez da obra txikia, besteak beste, 850.000 euro pasa behar dituzteeta. Erreka gurutzatuko duen oinezkoendako zubia eraiki eta errekaren bestaldean, hau da, Nafarroa etorbidean berdeguneak egokitu eta pasabidea sortu gura dute, ospitale ingururainokoa. Gobernu zentralak ez du oraindik jakinarazi E Planarekin finantzatu ahal izango den, baina urtea bukatu aurretik amaitu behar bada, laster jakinarazi beharko dute.



Gustura eta harro ibili ziren gaztetxoak iazko Zuhaitz Egunean. GOIENKARIA

**INGURUMENA** > ZUHAITZ EGUNA 2010

# 100 haritz eskatu dituzte Garagartzan landatzeko

Oraingo asteko egubakoitzean egin dute Zuhaitz Egunerako hitzordua

**U.M.** > ARRASATE

Txandala eta mendirako botak edo zapatilak jantzi, eta 160 lagun baino gehiago joango dira datorren martxoaren 5ean (09:30ean) Garagartzako Lete izeneko lursailera zuhaitzak landatzera. Arrasate herri eskolako eta Arizmendi ikastolako ikasle-irakasleak dira horiek. Eta, eurekin batera, urtero moduan erretiratuak ere gonbidatu dituzte Zuhaitz Egunean parte har dezaten.

Lana ere izango dute, Arrasateko Udalak 100 haritz eskatu ditu-eta. Diputazioaren Arizmendi mintegitik ekarriko dituzte.

**OPARIAK ETA HAMARRETAKOA**

Eta iragarri dute 225 opari dituztela landaketan parte hartuko dutenen artean banatzeko, baita hamarretakoa ere: "Ogitartekoa, ura eta ardoa".

## oharrak

NAGUSIAK

**> Itsas bidaia Abaroarekin**

Adriatiko inguruan itsas bidaia egiteko irteera antolatu du Abaroa erretiratuen etxeak. Irailaren 19tik 26ra arteko bidaia izango da. Prezioa da 1.125 gela bikoitzeko (500 euro aurreratu behar da pertsonako). Bidaiaz gain, jatorduak eta hainbat ekintza sartuta daude prezio barruan. Izena eman ahal da martxoaren 8tik apirilaren 9ra bitartean. Abaroako bazkide direnek eta ez direnek eman dezakete bidaiarako izena, baina bazkide ez direnek ez dute jakingo leku segururik izango duten martxoaren 22ra arte.

Bestalde, aurtengo batzar ororrerako dei ere egin du Abaroak. Martxoaren 17an egingo dute, 17:00etan, bosgarren aretoan. Halakoetan ohi den moduan, besteak beste, aurtengo aurrekontuaren gainean berba egingo dute. Abaroako ordezkariek jakinarazi dute norbaitek aldez aurretik kontu horien gaineko informaziorik behar badu, bulegotik pasa eta emango diotela.

ELKARTASUNA HAITIREKIN

**> Pintxo-potea, atzeratuta**

Haize indartsuen ondorioz, atzeratu egin dute Haitiren aldeko pintxo-pote ekitaldia. Oraingo asteko zapaturako egin dute hitzordua, lehengo leku eta ordu berean: Biterin, 18:00etan. Arrasate Bizirik ostalaritza elkarteak eta gobernuz kanpoko Harreman erakundeek antolatu dute ekimena, dirua batu eta Haitira bidaltzeko helburuarekin. Hainbat saltoki, eta ardo eta garagardo marken partaidetza ere badute.

## Eskailerak estalki barik eta tunela kenduta

Kontzezinoko obrak bukatuta, argitasun aldetik asko irabazi du inguruak, estalkia kendu diote-eta etxe arteko eskailerari. Modu horretan, usoen kaka arazoak ere konpondu dituzte. Atzeko tunela, berriz, tapatu egin dute, eta, hala, garbitasunean ere irabazi dute auzotarrek; orain, txiza usainik ez da igartzen, behintzat.



U.M.

**GAZTEAK** > ZERBITZUAK

# Informazioa SMS bidez jasotzeko gonbita egin du Gazte Bulegoak

Bulegoak gertatzen dituen ikastaroen zerrendan dagoeneko 50 harpidedun dituztela azaldu digu hango teknikariak

**MIRIAN BITERI** > ARRASATE

Gazte Bulegoak eskaintzen duen SMS zerbitzuan harpidetza egiteko gonbita egin dute. Arrasate Irratiari eskainitako elkarrizketa batean, hango teknikari Dorleta Kortazarrek gogorarazi du "doako" zerbitzua izateaz gain, modu errazean ere funtzionatzen duela: "Internet bidez eskain-tzen dugun zerbitzua da; esan beharra dago oso sistema erraza, azkarra eta eskuragarria dela. Posta elektronikoz mezua bidal-tzen dugunean, gazteek ibili behar dute posta horretara sartzen; SMS bidez, aldiz, zuzenean iristen da informazioa".

Gazte teknikariak zerbitzu horretan izena emateko egin beharrekoa azaldu du. Interesa duenak Gazte Bulegoarekin jarri behar du harremanetan eta jakinarazi behar du horretan izena eman gura duela. Telefono zenbakia eman beharko du, eta, bulegoak interesgarria izan daitekeen informazioa jasotzean, eskaera egin duenari bidaliko dio, SMS bidez, horren gaineko mezua.

Kortazarren esanetan, "esaterako, aurretik eskatutako triptiko bat iristen denean hori jakinarazteko mezua bidaltzen dugu, baita udalekuetarako deialdiak iristen direnean edo ikastaroak gertu daudenean. Azken horretan, zerrenda mardula dugu, 50 lagun ingurukoa, ikastaroen gaineko informazioa jasotzeko".

**INFORMAZIO OROKORRA**

Hori Arrasateri buruzko gaiei dagokienez. Bada, bestelako informazio orokorragoa ere jaso ahal dela aipatu du teknikariak, hala nola Gaztemaniak-erako sarrerak, dirulaguntza orokorren deialdiak eta urtean zehar gertatzen diren askotariko lehiaketak.

**JENDEARENGANA HELTZEA**

Kortazarrek zerbitzu horren ibilbide "isila" gogorarazi du: "Hasi ginen orain dela bi urte proba pilotu baten bidez, eta horri difusio handirik egin barik ekimen horrekin bagabiltza poliki-poliki jendearengana heltzen. Dena dela, horren gaineko kanpaina egin beharko dugula pentsatzen ari gara. Gure egitekoen zerrenda luze horretan sartuta zeregin dago hori".

**UDARAKO BEGIRALEAK**

Bestalde, Kortazarrek aipatu du dagoeneko hasi direla udarako begiraleak kontratatzeko deialdiak jasotzen. Euskal Herriko Bertsozale Elkarteak *Bertso Udalekuak 2010* kanpainari begira zuzendari eta sukaldariak behar ditu eta martxoaren 13an amaitzen da horretan izena emateko epea.

Gazte Bulegoko teknikariak, azkenik, aipatu du bihar, martitzena, Diputazioak aurtengo udalekuen kanpaina aurkeztuko duela.

ESKAINTZA

## Gertu daude txalaparta, dantza flamenko, zeramika eta argazkigintza ikastaroak

Gazte Bulegoak lau ikastaro ditu gertu. Txalaparta ikastaroa aste honetan bertan hasiko da. Eskola egunak aldatu egin dituzte aurten. Astelehenetan (18:00-20:00) eta zapatuetan (11:00-13:00) izango dira eta Ttakun txalaparta taldeak emango ditu. Martxoan, gainera, zeramika ikastaroa jartzeko asmoa ere badu. Dantza flamenkoa, berriz, Askoa Etxebarrietak emango du apirilaren 13tik ekainaren 19ra; martitzenetan izango dira horiek.

Argazkigintza gustuko dutenek, azkenik, jakin dezatela Antonio Murillok emango duela ikastaroa, eguaztenetan, apirilaren 14tik maiatzaren 19ra, 18:00etatik 20:00etara bitartean. Horietarako matrikulak 12 euro balio du ikasle eta langabeendako eta gainerakoendako, 20 euro. Interesa dutenek Gazte Bulegora deitu behar dute, 943 25 20 62 zenbakira, edo *gaztebulegoa@arrasate-mondragon.net* webgunera idatzi.



Gorostiza auzoko zirkulazioa egokituko dute. IMANOL SORIANO

**HIRIGINTZA** > LANAK

# Gorostiza egokitzeko bi milioi eta erdiko inbertsioa

Obra horiekin zirkulazio arazoak konpontzeaz gain, auzoa irisgarri bilakatu nahi du Udalak

**MIRIAN BITERI** > ARRASATE

Arrasateko Udalak Gorostizako bideak egokitu gura ditu eta LKS enpresari adjudikatu dizkio proiektua idazteko lanak. Aurreikusi dute obra horiek egiteko bi milioi eta erdi euro beharko dituztela.

Auzo horrek bost kale ditu, hiru daude zirkulaziora zabalik –Larragain, Olaran eta Maitena– eta gainerako biak oinezkoenak dira –Etxeazpia eta Etxeostea–. Arazo nagusia da zirkulaziora zabalik dauden kaleok ez dutela irteerarik, estuak direla, bi noranzko dituztela eta, gainera, aparkatu egin ahal dela. Horrek zirkulazioa askotxo zailtzen du. Horrez gainera, auzoko bost kaleen arteko komunikazio mota bakarra eskailerak dira.

**BI HELBURU**

Hori horrela, Udalak gura du, batetik, auzoko zirkulazio arazoak konpondu, eta, bestetik, auzoko kaleetan eskailerak igo eta jaitsi barik ibiltzeko aukera bideratu; bestela esanda, auzoa irisgarri bilakatu.

Orain, beraz, LKSk proiektua idatzi egingo du, gero hori onartu egin beharko dute eta horren ostean hasiko dira obrak egiten.

**GIZARTEA** > ESKAERA

# Herritarren segurtasunerako plana nahi du PSE-EEk

Salatu du alkatearen "eraginkortasunik eza", azkenaldiko lapurreten harira

**M.B.**> ARRASATE

Arrasateko PSE-EE taldeko bozeramaile Aritz Arrietak udalerriko "herritarren segurtasun-falta" salatu du eta Arrasateko alkate Ino Galparsoro egin du egoera horren erantzule. Horren harira, alkatearen "eraginkortasunik eza" nabarmendu nahi izan du, eta ez udaltzainena; izan ere, azken horien antolaketa Udal Gobernuaren "esku" dago.

Arrietaren arabera, "Arrasatek inoiz ez ditu hainbeste udaltzain izan (35) eta Galparsororen kudeaketa negargarria ari da izaten". Nabarmendu du azken urteotan udalerrian gora egin duela lapurren kopuruak. Horren harira, gogorarazi du urtarrilean 35 garajetan lapurtu zutela. Arrietak dio arrasatearrek "beldurra" dutela eta "faltan" igartzen dutela agenteak kaletik patruilatzen ikustea. Hori dela-eta, Udal Gobernuari exijitu dio "ahalik eta azkarren" jar dezala martxan herritarren segurtasunerako plana.

**GAUETAN, 100 KILOMETRO**

PSE-EE taldeko bozemaileak egindako salaketen harira, Ino Galparsoro alkateak erantzun du azkenaldian areagotu egin dela udaltzainaren presentzia herriko kaleetan: "Udaltzaingoaren aldetik, kalean egoten dira gehiago; gauetan, hainbat egunean, agenteek 100 kilometrotik gora egiten dituzte".

# Kanpatorpe kalea zabaldu dute ostera

Dagoeneko amaitu dituzte alde zaharreko Kanpatorpe kaleko lanak. Dena dela, oinezkoendako zabalik badago ere, Udaletik jakinarazi digute han bota duten hormigoia egonkortu barik dagoela eta, hortaz, ezin dela han aparkatu. Hori horrela izan dadin, lorontzi bi jarri dituzte pasabidea oztopatzen.

Egindako lanak alde zaharreko urbanizazio planeamenduaren barruan kokatuta daude. Zoru zaharra altxatu eta granitozko harria jartzeaz gain, argiteria aldatu eta saneamendu lanak egin ditu Excavaciones Arrasate enpresak azken bi hilabeteotan. Udalak 93.000 euro inbertituko ditu egitasmo horretan.



JOKIN BEREZIARTUA

**KULTURA** > ESKAINTZA

# Orfeoiko txikitxoen eta Gaberoren kontzertua hilaren 26an izango da

Martxoa musika eta antzerki ekitaldiz josita dator; gainera, hainbat ospakizun izango dira herrian: Santu Martirien jaia, Andramari jaiak eta Erramu-zapatua



Orfeoi Txiki, Orfeoi Txikitxo eta Gaberoko neska-mutikoak. JOSETXO ARANTZABAL

**ARANTZAZU EZKIBEL** > BERGARA
Orfeoi Txiki, Orfeoi Txikitxo, Gabero, Bergarako Udal Musika Banda, *Rosas Rojas* eta *Euskarazetamol* dira, besteak beste, martxoko kultura eskaintzako protagonistetako batzuk.

Antzerkia eta musika ez ezik, ospakizunek ere lekua izango dute hasi berri den hilean. Herrian hain ezaguna den Erramu-zapatua, esaterako.

**TXIKITXOEN KONTZERTUA**
Oñatin estreinaldia egin ondoren, Mariaren Lagundian egingo dute emanaldia Orfeoi Txiki, Orfeoi Txikitxo eta Gabero taldeek. Hilaren 26an izango da, Mariaren Lagundiko elizan, 19:30ean. *Jostailugilea* ipuin musikatua antzeztuko dute.

Musikarekin jarraituz, datorren zapatuan, hilaren 6an, Mursego talde eibartarrak kontzertua eskainiko du Zabalotegi aretoan. Kontzertua 20:00etan izango da, eta sarrera 5 euro kostako da. Hilaren 14an, aldiz, Bergarako Musika Bandaren kontzertua Udal Pilotalekuan, 12:30ean; eta, egun berean, Bergarako Orfeoiak kontzertua eskainiko du Mariaren Lagundian, 19:00etan.

**ANTZERKI ESKAINTZA**
Egubakoitzean Cristina Castillok *Cruzadas cotidianas* lana taularatuko du Zabalotegin. Lau pertsonaren bizitzako zatiak erakutsiko dizkigu Castillok. Emanaldia 22:30ean izango da. Hilaren 12an Bikoteatro taldearen eskutik *Euskarazetamol*; eta hilaren 19an La Papa taldearen *Rosas Rojas*. Antzerkiaz gozatzeko aukera bikaina, hortaz.

**OSPAKIZUNAK**
Aste bukaeran, hilaren 6tik 8ra Santu Martirixen jaia ospatuko dute Osintxun; martxoaren 25ean, Elizamendiko Andramariak; eta, hilaren 27an hain ezaguna den Erramu-zapatua.

**IKASTAROAK**
Bizikasik antolatuta bi ikastaro: web orrien tailerra martxoaren 15etik 30era izango da, astelehenetik eguenera 16:00etatik 18:00etara.Pertsona nagusien zaintza ikastaroa, ostera, apirila eta maiatza artean izango da. Informazio gehiago Migel Altunan, 943 76 93 94 telefonoan.

**POLITIKA** > OSOKO BILKURA

## Larraulgo eskola txikiaren aldeko mozioa onartu dute

Osoko bilkuran aurkeztu zuten; EAren eta Udal Gobernuaren aldeko botoak, EAJren abstentzioa eta PSE-EEko kontrako botoak izan zituen gaiak

**A.E.** > BERGARA
Larraulgo Udalak (Gipuzkoa) aurkeztutako eskola txikien aldeko mozioa onartu du osoko bilkurak. Larraulen eskola txikia abian jartzeko mozioa da, hain zuzen, eztabaidatu eta onartu dutena. EAren eta Udal Gobernuaren aldeko botoak izan ditu gaiak; EAJ abstenitu egin da; eta PSE-EE alderdiak kontrako botoa eman du. Gainera, sozialistek Eusko Jaurlaritzako eskoletako zuzendariak idatzitako testua irakurri zuten bilkura aretoan, euren desadostasuna erakusteko.

**35 URTE ESKOLA BARIK**
Larraulgo Udalaren testuak dio 35 urte direla hezkuntza zerbitzua herrian bermatzen ez dena. Garai baten herria husten joan zen; eta, hain zuzen, horrek ekarri zuen eskola ixtea. Orain, ordea, Larraul biziberritu egin da eta populazioa lehengo neurrira etorri da. Hala, herrian zerbitzu propioa izateko datu demografikoak dituztela ikusita, Larraulen 2007an hasi ziren lanean eskola zerbitzua herrian jartzeko; eta, 2008ko martxoan Udalak eskola txikia eskatu zuen.

Hezkuntza Sailak 2 eta 6 urte bitarteko haurrak eskolaratzeko gela bat sortzeko baimena eman zion Larraulgo Udalari, hasiera batean; gero, 2009ko apirilean, 12 urte arteko haurrak eskolaratzeko eskola txikia sortzeko baimena jaso zuten.

**EZ DUTE ADOSTUTAKOA BETEKO**
Larraulgo udalbatzak lehen hezkuntzako 6. ikasturtera arte eskola txikia sortzeko borondatea erakutsi du; baina Hezkuntza Sailarekin izandako bileren ondoren jakin du Hezkuntza Sailak ez duela onartutakoa beteko.

Egoera hori dela eta, Bergarako Udalak babes osoa eskaini dio Larraulgo Udalari. Bergarako Udalak Hezkuntza Sailari eskatuko dio onartutakoa betetzeko; gainera, osoko bilkuran onartutakoaren berri emango dio Hezkuntza sailburuari.

**PSE-EE, AURKA**
Sozialistek Jaurlaritzako eskolen zuzendariaren idatzi bat irakurri zuten. "Larraulen ez dago behar beste haur; eta, gainera, 3 kilometrora Asteasuko eskola dute", irakurri zuten. Horregatik, PSE-EEk aurka bozkatu zuen.

**INGURUMENA** > ZUHAITZ EGUNA

## Martxoaren 6ra atzeratu dute zapatuan Gorlan egitekoak ziren landatzea

Iragarrita zeuden haize bortitzak zirela-eta erabaki zuten atzeratzea: asmoa da 100 zuhaitz inguru landatzea

**A.E.** > BERGARA
Joan den zapatuan Gorlan egitekoak ziren landatzea datorren zapatura atzeratzea erabaki dute; hain zuzen, martxoaren 6ra. Aste bukaerarako eta bereziki zapaturako iragarri zituzten haize bortitzak zirela-eta erabaki zuen Udaleko Ingurumen batzordeak landatzea atzeratzea.

Hortaz, Gorlako pagadian landatzea egin gura duenak datorren zapatuan izango du hitzordua. Zuhaitz Egunaren barruan antolatutako ekitaldia da; eta autobusa, ogitartekoa, zuhaitzak eta aitzurrak Udalak jarriko ditu. Autobusa 09:30ean abiatuko da Ibargaraitik.

**100 ZUHAITZ**
Sentsibilizazioa bultzatzea eta basoak berreskuratzea eta hobetzea da ekimen horren helburua. Hala, Gorlako pagadia berreskuratzeko 100 zuhaitz inguru sartuko dituzte datorren zapatuan hara joaten direnen artean –guztira, baina, beste 400 ere landatuko ditu Udaleko brigadak–.

Pagoak, basa sagarrondoak, erratzak, hurritzak, haginak eta urkiak sartuko dituzte Gorlan. Gainera, norberak landatutako zuhaitzei izena jartzeko aukera egongo da.

**UDALA** > ZERBITZUAK

# Kiroldegiko taberna ustiatzeko baldintzak onartu ditu udalbatzak

## Taberna ustiatzeaz gain, kirol eremuen kontrolaz eta garbiketaz ere arduratu beharko du zerbitzua bere gain hartzen duenak

**MONIKA BELASTEGI** > BERGARA
Labegaraietako kiroldegiko taberna eta kirol eremuen kontrola eta garbiketa enkantera ateratzeko baldintzak onartu zituen udalbatzak asteleheneko osoko bilkuran, Gobernu taldearen, EAJren PSE-EEren eta EAren aldeko botoekin.

Kontratuaren iraupena urtebetekoa izango da, urtero luzatzeko aukerarekin, gehienez bederatzi urtez. Bestalde, gehienezko iraupen osoa hamar urtekoa izango da.

Nahi duten pertsona guztiak aurkeztu ahal izango dira enkantera eta parte hartzeko 400 euroko behin-behineko fidantza jartzea derrigorrezkoa izango da.

Lizitaziorako gehienezko kopurua urteko 18.000 euro izango da –BEZ barne– eta kopuru hori gainditzen duen proposamenik ez da kontuan hartuko.

Prozedura ireki horretan parte hartzeko baldintzak Kirol Zerbitzuan aztertu ahal izango dira, 09:00-13:00 orduegian. *www.bergara.net* helbidean ere eskuratu ahal izango dira.

**ERRAMU-ZAPATUKO TXOSNAK**
Erramu-zapatuko ferian, martxoaren 27an, jarriko diren bi txosnak ustiatzeko baldintzak onartu ditu Udalak, baita eskaerak aurkezteko epea ireki ere.

Seminarioko jolaslekuan jarriko dute taloak saltzeko txosna eta Munibe plazan jarriko dute Eusko Labeleko oilaskoa saltzeko beste bat. Deialdian parte hartu ahal izango dute irabazi asmorik gabeko elkarteek eta eskaerak aurkeztu ahal izango dituzte eguazteneko – martxoaren 10a– 13:30ak arte, udaletxean. Eskaera orriak eta baldintzak eskura daitezke udaletxeko idazkaritzan eta *www.bergara.net* helbidean.



Labegaraieta kiroldegi sarreran dago taberna. GOIENKARIA

**JENDARTEA** > ELKARTEAK

# Hautagaiendako izenemate epea zabaldu du San Joxepek

## Zuzendaritza batzordean aldatu behar dituzten hiru kideen ordezkoak aukeratu nahi dituzte

**M.B.** > BERGARA
San Joxepe erretiratuen elkarteak urteko batzarra egingo du martxoaren 24an.

Urteko batzar horretan zuzendaritza batzordeko hiru kide berritzea dagokio San Joxeperi eta horretarako hautagaiak behar dituzte.

Hori horrela, izenematea zabaldu dute hautagaiek euren burua aurkezteko. Izenemate epea bihar, martxoak 2, zabalduko dute eta bukatuko da martxoaren 14an. San Joxepe elkarteko zuzendaritza batzordeak bazkide guztiei egin nahi die dei, eta parte hartzera gonbidatu ere bai.

Martxoaren 15ean hautagaien zerrenda emango dute aditzera eta hilaren 19ra arte ikusgai jarriko dute.

## oharrak

ODOL ATERATZEA
**> Martxoaren 3an izango da hurrengo odol ateratzea**
Hurrengo odol ateratzea eguaztenean izango da, ohi bezala, Seminarioko egoitzan, 18:00etan.

ZABORRA
**> Puntu Berde Mugikorra birritan etorriko da martxoan**
Etxeko olio erabilia batzeaz arduratzen den Puntu Berde Mugikorra hilaren 13an eta 27an etorriko da herrira. 09:00etatik 13:00etara bitartean egongo da merkatu plazaren ondoan.

HITZALDIA
**> Hiperaktibitatearen gaineko hitzaldia martitzenean**
*Arreta gabezia eta hiperaktibitatea* delako hitzaldia antolatu du Aranzadi ikastolak martitzenerako. 18:30ean izango da, ikastolan, eta berba egingo dute Gipuzkoako arreta gabeziaren eta hiperaktibitatearen elkarteko ordezkariek.

BATZARRA
**> Bergarako Orfeoiak urteko batzarra egingo du martxoaren 2an**
Erregetxo plazako entsegu lokalean egingo dute urteko batzarra. Lehenengo deialdia egin dute 21:00etan eta 21:30ean bigarrena.

UDALA
**> Ibilgailuen zerga ordaintzeko epealdia zabalik dago**
Urtero bezala, trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergaren 2010. urteko errolda onartu du Udalak. Zerga hori ordaintzeko borondatezko epea gaur, astelehena, hasiko da eta maiatzaren 31n bukatuko da. Egun horretatik aurrera errekarguarekin kobratuko dutela ere eman dute aditzera Udaleko iturriek.

HITZALDIA
**> Nafarroako Erresumaren konkistari buruzko hitzaldia**
Udalak Euskal Herriko historiaren gainean antolatutako hitzaldi sortaren barruan, *Iruñeko Erresumaren sorrerarainokoa. Historiaurretik IX. mendera* delako hitzaldia egingo du Beñi Agirrek. Martxoaren 3an, eguaztena, izango da, 19:00etan, osoko bilkuren aretoan.

> AZPIEGITURAK

### Osintxu auzora gasa eramateko azpiegitura lanak Campezo Construccion enpresak egingo ditu

Osintxu auzora gasa eramateko lanak egin nahi ditu Udalak eta dagoeneko esleitu ere egin dizkio Campezo Construccion enpresari, 40.000 eurotan. Lanok, gainera, hiru hilabeteko epean egin beharko ditu enpresa horrek. Aldundiko Ingurumen Zuzendaritzak bidegorriaren Soraluze-Mekolalde tarteko lanak ere Campezo Construccion enpresari esleitu zizkion iaz abenduan. Bidegorria trenbide zaharrean egokituko dute eta gasaren azpiegitura ere han egingo dute. Hori horrela, Udalak Naturgas enpresarekin, Aldundiarekin, Gipuzkoako Ur Kontsorzioarekin eta enpresa eraikitzailearekin egindako batzarren ostean, bidegorria egitekoak zirela aprobetxatu du gasa Osintxura eramateko.



**ZIRKULAZIOA** > SALAKETAK

# 2009ko isunen %15 Bidebarrieta kalean jarri zituzten; guztira, 91 salaketa

Portu kalean, Kale Barrian, Santa Marina plazan, Lizaur kalean, Arantzazuko Ama kalean eta Aita Madina kalean jarri zituzten zigor gehienak

**MIREIA BIKUÑA** > OÑATI

Udaltzainek emandako datuen arabera, 2009an 616 isun jarri zituzten herriko kaleetan, 2008an baino 296 gutxiago (orain dela bi urte 912 salaketa jarri zituzten). Kale gatazkatsuena Bidebarrieta izan zen: han 91 salaketa ipini zituzten. Hain zuzen ere, %15,2. Zerrendako hurrengo kale gatazkatsuenak dira Portu kalea (%10,07), Kale Barria (%5,61), Santa Marina plaza (%5,12), Lizaur kalea (%4,62), Arantzazuko Ama kalea (%4,29), San Lorentzo kalea (%3,63), eta Aita Madina kalea (%3,47). Aldiz, salaketa gutxien jarri dituzten kaleak dira Roke Azkune (isun bat), Ugarkalde auzoa (1), Zumeltzegi (1), Kantonoste (1), Mikel Aozaratza (2) eta Motxon (2).

**ARINAK, LARRIAK ETA OSO LARRIAK**

Udaltzaingoan eman dizkiguten datuen arabera, iaz jarritako 616 salaketetatik 550 arinak izan ziren, 47 larriak eta sei oso larriak. Bestalde, isunen egoeraren berri eman digute: 361 salaketa ordainduta daude (%58,60); 55 gidarik egindako alegazioak onartu egin dituzte (%8,92); eta gainerakoak, 200 salaketa (%32,46), kobratzeko prozesuan daude.

**SALAKETA GEHIEN, AZAROAN**

Salaketa kopurua hilabeteka begiratuta, ikus daiteke udako oporren ondorengo hilabeteak izan zirela gatazkatsuenak: azaroan (101 salaketa), urrian (78) eta irailean (74) jarri zituzten isun gehien. Ostera, isun gutxien, abuztuan (7), ekainean (20) eta otsailean (27) jarri zituzten.

2009an honela jarri zituzten isunak, hileka: urtarrilean 41, otsailean 27, martxoan 60, apirilean 36, maiatzean 44, ekainean 20, uztailean 50, abuztuan 7, irailean 74, urrian 78, azaroan 101 eta abenduan 54.



Udaltzaina, isuna jartzeko gertu. M.B.

DATUA

**616**

**ISUN**

Horixe da 2009an udaltzainek Oñatin jarritako salaketa kopurua, orain dela bi urte baino 306 isun gutxiago. Gehienak (%90,75) arinak izan ziren. Sei bakarrik izan ziren isun oso larriak.

**200**

**KOBRATZEKO**

616 isunetatik 200 kobratzeko prozesuan daude; hau da, dagoeneko bukatu zaie borondatezko ordainketa egiteko epea. Ez dute %30eko beherapenik izango.

## Isun gehien jarri dituzten kaleak

| | ISUNAK | PORTZENTAJEA |
|---|---|---|
| Bidebarrieta kalea | 91 | %15,02 |
| Portu kalea | 61 | %10,07 |
| Kale Barria | 34 | %5,61 |
| Santa Marina plaza | 31 | %5,12 |
| Lizaur kalea | 28 | %4,62 |
| Arantzazuko Ama kalea | 26 | %4,29 |
| San Lorentzo auzoa | 22 | %3,63 |
| Aita Madina kalea | 21 | %3,47 |
| Errekalde auzoa | 20 | %3,30 |
| San Anton kalea | 19 | %3,14 |
| Unibertsitate etorbidea | 19 | %3,14 |
| Kale Zaharra | 18 | %2,97 |
| Foruen enparantza | 18 | %2,97 |
| San Juan kalea | 16 | %2,64 |
| Martzelino Zelaia kalea | 16 | %2,64 |
| Atzeko kalea | 15 | %2,48 |
| Auzabarri kalea | 15 | %2,48 |
| Apaolaza A. kalea | 12 | %1,98 |
| Aita Mortara kalea | 12 | %1,98 |
| Lope Agirre kalea | 12 | %1,98 |

ITURRIA: OÑATIKO UDALTZAINGOA

**Manoli Barrenetxea** > PSE-EEko zinegotzia

# "Oñatin estreinatu naiz zinegotzi moduan, baina lau batzordetan lan egingo dut"

**M.B.** > OÑATI

**Manoli Barrenetxea (Bergara, 1959) Oñatiko PSE-EEko zinegotzi berria da; hain zuzen ere, Blanca Roncalek utzitako tokia hartuko du. Eguneko osoko bilkuran hartu zuen kargua beste herri batzuetako zinegotzi sozialisten aurrean. Lan egiteko "gogoarekin" dagoela esan digu.**

**Lehen aldiz egingo dituzu zinegotzi lanak. Urduri zaude?**

Bai, oso urduri. Urduri egon nintzen eguneko osoko bilkuran eta urduri egongo naiz datozen egunetan. Baina lagunak diren beste zinegotzi batzuek esan didate normala dela.

**Nola animatu zinen Blanca Roncalen lekua betetzera?**

Alderdi Sozialistara afiliatu nintzen eta mitinetan parte hartu izan dut. Beti egon naiz alderdiaren beharrak asetzeko gertu. Oñatiko karguaren berri eman zidatenean, gustu handiz onartu nuen.

**Zure ahizpa Bergarako zinegotzia da. Zenbat aholku eman dizkizu?**

Asko. Egunero egoten gara elkarrekin, eta aholku batzuk eman dizkit.

**Blanca Roncalek kontatu dizu zer topatuko duzun Oñatin?**

Hitz egin dugu, eta aurrerapena egin dit.

**Kargua hartu aurretik ezagutzen zenituen gainerako zinegotziak?**

Bai, alkateak aurkeztu zizkidan guztiak banan-banan; eta guztiek eman zidaten ongietorria. Guztiek esan didate laguntza ematеko gertu daudela. Alkatearekin gehiago berba egiteko aukera izan dut eta jatorra dela iruditzen zait. Oraingoz, gustura nago.

**EAJk eta H1!-ek gehiengoa dute Oñatin. Zailagoa da egoera horretan lan egitea?**

Zinegotzi sozialistok lan egiteko arazo asko ditugu, oro har, baina gainerako alderdietako zinegotziek duten jarrera ona bada, errazagoa izaten da. Defendatzen dugun alderdia defendatzen dugula, errespetuz jokatu behar dugu.

**Zenbat batzordetan parte hartuko duzu?**

Gizarte Zerbitzuetako; Ogasun, Langileria eta Plan Estrategikoko; Nekazaritza eta Auzoetako; eta Hirigintza eta Lurralde Antolamenduko batzordeetako kide izango naiz.



Manoli Barrenetxea. M.B.

**"Defendatzen dugun alderdia defendatzen dugula, errespetuz jokatu behar dugu"**

**GASTRONOMIA**

# Txerrikia oinarri dituzten menuak

**M.B.** > OÑATI

Debagoieneko jardunaldi gastronomikoen IV. edizioan txerrikia da protagonista. Horren harira, martxoaren 14ra arte txerrikiak oinarri dituzten menu bereziak eskainiko dituzte Soraluze, Goiko Benta eta Etxe Aundi jatetxeetan.

**PINTXOAK**

Jardunaldi gastronomikoak abiarazteko pintxo dastatzea egin zuten Oñatin Aratuste martitzenean. Eta, guztira, Basatxerri txerriki ekoizlearen produktuekin egindako 1.000 txerriki pintxo banatu zituzten: txistorra, odolki, trufa eta pate pintxoak, hain zuzen ere.

ARETXABALETA > KULTURA

# 36ko gerra eta txakurrak martxoko erakusketetan

Zapatuan 'Baziren behin...' ipuin kontaketa dute umeek eta datorren astelehenean 'Rosas rojas' antzezlana helduek La Papa taldearen eskutik

MIRARI ALTUBE > ARETXABALETA

Erakusketa bi izango dira Arkupen martxoan. Martitzenean hasi eta hilaren 24ra bitartean *Hilotzak hilobietatik ateraz duintasunak berreskuratuz* izango da Aranzadiren eskutik; eta horri lagun egiten Intxorta 1937 kultura elkarteak *Gerra zibila eta errepresioa Aretxabaletan* jarriko du. Gainera, Aranzadiko kide Lourdes Herrasti Erlogorri aretxabaletarrak duintasunak berreskuratzearen gaineko berbaldia egingo du hilaren 16an, martitzena, Zaraia aretoan (19:00).

Bigarren erakusketa martxoaren 26an jarriko dute: *Gipuzkoako txakurrak herriz herri*. Manuel Montiel elgetarrak Gipuzkoako 88 herritan txakurrei ateratako argazkiekin osatutako erakusketa da; Aretxabaletari dagokion argazkian, esaterako, *Lua* izeneko txakurra dago, pointer arrazakoa.

**MUSIKA ETA IKUSKIZUNAK**

Leizarra musika eskolako ikasleek hiru emanaldi egingo dituzte: eguaztenean (18:30), gitarra eta konboa; hilaren 15ean (18:30), akordeoia; eta hilaren 24an (19:00), trikitia eta panderoa.

Ikuskizunak ere izango dira martxoan Arkupen. Zapatuan Kontu Kantoi taldeak *Baziren behin… neska abenturazaleak eta mutil abeslariak* eskainiko die 6 urtetik gorako neska-mutikoei liburutegian (11:30).

Astelehenean (19:30), Emakumeen Nazioarteko Egunean, *Rosas rojas* antzezlana eskainiko du La Papa antzerki taldeak; etxeko biolentzia eta tratu txarren gaineko hausnarketa, hain zuzen. Eta zinemari dagokionez, zineklubean, emakumeen gaineko filmak emango dituzte martxoko eguen guztietan (19:30): *Caramel*, *Leonera*, *En tierra de hombres* eta *La teta asustada*.




Martxoaren 26an jarriko duten txakurren gaineko erakusketa. GOIENKARIA

LORAMENDI EUSKARA ELKARTEA

## 21. literatura lehiaketa: sari banaketa

Loramendi Euskara Elkarteak antolatutako 21. literatura lehiaketako sari banaketa izango da egubakoitzean (19:00). Aurten, lehenengoz, Arkupeko Zaraia aretoan egingo dute ekitaldia.

Lehen Hezkuntzako bigarren eta hirugarren zikloetan dauden neska-mutikoek ipuinak eta bertsoak aurkeztu dituzte. DBHko ikasleek, ostera, bertsoak, maitasun gutunak eta esketx edo film laburrak. Originaltasuna eta bertako euskara erabili izana baloratu dute epaimahaiko kideek eta egubakoitzean lan onenen egileek sariak jasoko dituzte. Gainera, partehartzaile guztiek izango dute saritxoren bat.

> GAZTEAK

### Emakumeen aldeko ekitaldiak egingo dituzte astean

Datorren astelehenean da Emakumeen Nazioarteko Eguna, baina Atxagazte gaztelekuko kideak eguenean, hilak 4, hasiko dira herria girotzen. Hala, txapak egingo dituzte egun horretan eta egubakoitzean Emakumeen Nazioarteko Egunaren gaineko aldarrikapen pankartak jarri herrian.

Zapatuan, hilak 6, ostera, gaztelekuan osatutako hankapalu taldearen aurkezpena egingo dute Herriko Plazan. Hainbat ikastaro egin dituzte azken hilabeteotan eta orain, makila luzeen gainean ibiltzen direnen taldea aurkeztuko dute.

> ERRETIRATUAK

### Andaluziara joateko txartelak salgai datorren astean

Basotxo erretiratuen elkarteak Andaluziara –Granada eta Kordoba– joateko bidaia antolatu du. Apirilaren 5etik 12ra joango dira, baina txartelak datorren astean hartu beharko dituzte interesatuek, hilaren 8an, 9an edo 10ean Basotxoko bulegoan (11:00-12:00).

Bestalde, martxoaren 10ean, eguaztena, batzar orokorra egingo du erretiratuen elkarteak (17:00). Bertan landuko diren gaiak bazkideen interesekoak direla jakinarazi dute batzordeko kideek, eta batzarrera agertzeko eskatu.

ESKORIATZA > ERRETIRATUAK

# Jo eta su musean, tutean eta briskan

Ia 60 erretiratuk hartu zuten parte Olazarrek antolatutako karta joko txapelketetan

Almadiaren Egunera joateko ez dago lekurik; apirilean sagardotegira egingo dute irteera

M.A. > ESKORIATZA

Martitzen eta eguaztenean jokatu zituzten Olazar elkarteko erretiratuek mus, tute eta briska txapelketak. Ia 60 lagunek hartu zuen parte, erdiak musean, eta giro bikaina sortu zen txapelketaren inguruan.

Txapela, baina, denendako ezin eta hona hemen karta jokoetako irabazleak: musean, Paco Gomez eta Abuela; tutean, Esteban Arrieta eta Floren Oianguren; eta briskan, Ines Oianguren eta Esther Barandalla.

Astean, ostera, dantzaldiarekin hasiko dira. Egubakoitzetan izango da (18:00-20:00), kultura etxeko lehen solairuan.

**APIRILEAN SAGARDOTEGIRA**

Bestalde, joan den astean bukatu zen maiatzaren 1ean Burgira (Nafarroa) joateko izenemate epea. 60 leku dituen autobusa eskatu dute Olazarko kideek Almadiaren Egunera joateko, jende asko zegoelako interesatuta. Autobus hori ere bete egin dela jakinarazi dute eta batzuk leku barik geratu direla: "Hala ere, azken orduan lekuren bat egon daiteke, baten batek ezin izango duelako joan", dio presidenteak.

Hori baino lehen, apirilaren 24an sagardotegira egingo dute irteera. Oraindik ez dute zabaldu izena emateko epea, baina laster iragarriko dute.



Erretiratuak karta jokoan joan den astean. MIRIAN BITERI

**BAZKIDE KUOTA ORDAINTZEKO**

Olazar erretiratuen elkarteak gogorarazi gura du bazkide batzuek oraindik ez dutela urteko kuota ordaindu. Horiek lehenbailehen joan behar dute elkartearen bulegora: martitzen edo eguenetan (11:00-12:00). Urteko bazkide kuota 7 euro da.

> KZGUNEA

### Eguaztenean eta hilaren 17an izango da dinamizatzailea

KZguneko dinamizatzaile Aitor Madridek iragarri du martxoan bi egunean izango dela Eskoriatzan: hilaren 3an eta 17an; bietan ere, arratsaldez (16:30-20:00).

Ikastaro zerrenda luzea eskainiko die herritarrei bi egun horietan –16 urtetik gorakoendako– eta guztiak bi ordukoak izango dira: sare sozialak zer diren jakiteko, foro bat sortzeko, *Youtube*-ra bideoak igotzeko… Interneten gainean sakondu gura dutenendako ikastaroak ere badaude: Ubuntu sistema eragilearen abantailak, *Jaicut* programa bideoak editatzeko… Eta *Google*-ek eskaintzen dituen aplikazioen berri ere emango du: *iGoogle, Calendar*…

Eskoriatzako KZgunean, gainera, ONA txartela eska daiteke; horretarako, nortasun agiria eta osasun txartela eguneratuta eraman beharko dira.




Aramaioko Udalaren dirulaguntza eskuratuko du, adibidez, Aramaioko Pilota Elkarteak. GOIENKARIA

**ARAMAIO** > OSOKO BILKURA

# Onartuta kultura eta kirol taldeendako dirulaguntzak

Aramaioko Udalak 18.500 euro bideratuko ditu kirol eta kultura taldeendako; azken zatia urte amaieran jasoko dute

**EDU MENDIBIL** > ARAMAIO

Kultura eta kirol taldeendako dirulaguntzak onartu zituen udalbatzak, aho batez, eguazteneko osoko bilkuran. Aramaioko taldeek aurten jasoko dutenaren %75 duzue alboko koadroan. Gainerako %25a urte bukaeran jasoko dute. Koadroan ez da Orixol mendi elkartea agertzen, epez kanpo aurkeztu zuelako eskaera udaletxean. Edozein modutan, kontuan izango du Udalak haien eskaera. 2009ko azken %25ari dagokionez, Itur-Zuri emakumeen elkarteak ez du jasoko, superabita izan zuelako, Ainara Inuntziaga zinegotziak aditzera eman zuenez.

**EMERGENTZIA PLANA AZTERGAI**

Aramaio eta Arrasate arteko errepidearen mozketa dela eta, udal ordezkariak larrialdietarako plana zehazteko bilera egingo du astelehen eguerdian udaletxean. Besteak beste, Jaurlaritzaren 112 emergentziazko zerbitzuko, Gurutze Gorriko eta Aldundiko suhiltzaileetako ordezkariak etorriko dira Aramaiora, horrelakoetan nola jokatu aztertzeko. Batez ere, nagusiek euren kezka azaldu dute errepide mozteak ekarritako egoera berria dela-eta.

### Kultura eta kirol taldeei laguntzak

| | |
|---|---|
| Itur-Zuri emakume elk. | 1.900 |
| Bixente Goikoetxea abesb. | 900 |
| Kalejira Trikitixa Taldea | 1.350 |
| Alaiak erretiratuen elk. | 1.350 |
| Lagun Artean dantza taldea | 950 |
| Oletako Briska taldea | 1.200 |
| Kurtzetagain | 1.000 |
| Osteta Futbol | 550 |
| Azpiko Racing | 1.000 |
| Papargorri eskolania | 750 |
| Gazte Asanblada | 1.500 |
| Aramaioko pilota elk. | 800 |
| Oilogor ehiza eta arran. elk. | 750 |
| Gorroto musika taldea | 600 |
| Guraso elkartea | 2.500 |
| Txirritola euskara elk. | 2.500 |
| **Guztira** | **18.500** |
| Kultura taldeak | 13.500 |
| Kirol taldeak | 5.000 |

ITURRIA: ARAMAIOKO UDALA.

**ANTZUOLA** > KULTURA

# Abian da 'Antzuola eta antzuolarrak argazki lehiaketa' hirugarren urtez jarraian

Lanak apirilaren 30a baino lehen aurkeztu behar dira Antzuolako udaletxean; parte hartu ahal dute herrian jaio edo bizi direnek

**ARANTZAZU EZKIBEL** > ANTZUOLA

Dagoeneko martxan da *Antzuola eta antzuolarrak argazki lehiaketa*. Hain zuzen ere, hirugarren urtez jarraian egingo dute lehiaketa hori; esan behar da, baina, lehen *Antzuolako txokoak* argazki lehiaketa zuela izena.

**LANAK AURKEZTEKO EPEA**

Lanak udaletxean aurkeztu beharko dira apirilaren 30a baino lehen eta lehiaketan parte hartu ahal du Antzuolan jaio edo bizi den edonork.

Argazkietan Antzuolak izan beharko du protagonista: Antzuolako ohiturak, jaiak, Antzuolako jendea, tokiak... azaldu beharko dira argazkietan. Partehartzaile bakoitzak, gehienez, hiru argazki aurkeztuko ditu; koloretan edo zuri-beltzean.

**HIRU KATEGORIA**

Argazkien euskarria 30 x 40 zentimetro izango da, kartoi mehezkoa; eta argazkiaren neurria, gehienez, 25 x 35 zentimetro. Hiru kategoria egongo dira: 6-12 urte; 13-18 urte; eta, 19 urtetik gorakoak. Informazio gehiago *www.antzuola.com* atarian dago ikusgai.

**ELGETA** > DIRULAGUNTZA

# Patronaturako 123.000 euro emango ditu Jaurlaritzak

Eraikinaren berritze lanak egiteko agindu du dirulaguntza Eusko Jaurlaritzako Gazteria Sailak; proiektua idazteke dago

**LARRAITZ ZEBERIO** > ELGETA

Martitzenean egindako osoko bilkuran eman zuen albistearen berri Oxel Erostarbe alkateak. "Kalkulatzen dugu eraikinaren berritze lanen aurrekontua milioi bat euroren bueltan ibiliko dela. Herritik kanpoko erakundeen babesa ezinbestekoa dugu Elgetan garrantzi horretako proiektuak aurrera eramateko. Ate joka jarraitu beharko dugu babes gehiagoren bila".

**PROIEKTUAK IDAZTEKO**

Eusko Jaurlaritzarena ez da proiektu horrek jaso duen dirulaguntza bakarra. Gipuzkoako Foru Aldundiak 30.996 euro agindu ditu proiektua idazteko. Udal Gobernuak nahiko luke proiektua urtea amaitu aurretik idatzita egotea. Eraikinaren jabetza, bestalde, Gotzaindegiarena da. Negoziazioei buruz galdetuta, "aurrera doaz", adierazi du Oxel Erostarbe alkateak.



14 urte dira eskola izandako eraikina hutsik dagoela. L.Z.

**LEINTZ GATZAGA** > BASOA

# Larreen arduraduna etorriko da basoen gainean jarduteko

Udal agintariekin eta abeltzainen elkarteko kideekin elkartuko da Aldundiko ordezkaria

**MIRARI ALTUBE**> LEINTZ GATZAGA

Gatzagan izango da laster Aldundiko larreen gaineko arduraduna. Basoen garbiketaren gainean jardungo du abeltzainen elkarteko kideekin eta Udaleko ordezkariekin.

**MAKINA EROSTEKO ZAIN**

Asier Elkorobarrutia mendien ardura duen zinegotziak badaki basoa garbi izateak duen garrantzia. Hala, garbiketa lan horiek egiteko makina erostea zuen helburu iaz abeltzainen elkarteak, baina dirurik ez eta erosketa atzeratzea erabaki zuten. Aurten ere dirurik izango ez den beldur da Elkorobarrutia; horregatik, basoen garbiketen gainean jardun gura du larreen arduradunarekin, Gatzagako basoak garbi zelan mantendu erabakitzeko. Pagoeder aldean, esaterako, sasi handienei su emateko baimena eskatu gura dio. Elkorobarrutiak dio ganaduarendako ere oso garrantzitsua dela basoa garbi egotea: "Zenbat eta hobeto egon, gure basoetan ganadua sartzeko eskaera gehiago jasoko ditugu".

**GANADUA ATERATA**

Aste bukaeran bukatu da ganadua basoetatik ateratzeko epea. Otsaileko azken egunean atera behar da derrigorrez, belarra hazteko eta basoa suspertzeko, eta berriro maiatzaren 1ean sartu –behiak, zaldiak eta ardiak–. Horretarako baimen eskaerak azaroan aurkeztu zituzten eta orain baimen horien berri emango diete. Aurten, gainera, gatzagarrak ez dira abeltzainak ere interesatuta daude, eta ikusi egin beharko da zenbatendako lekua dagoen.




**> FUTBOLA**
Mondraren, Aloñaren eta Bergararen partiduak bertan behera **> 22-23**





**> SASKIBALOIA**
Aloña Mendiko senior mutilek 83-71 menderatu zuten Getxo **> 24**





**> PALA**
Muneta-Serrak eta Etxeleku-Arotzenak finala jokatu dute Tolosan **> 25**


# Denboraldirako aurreikuspen onak ditu Gatzagako taldeak

**TXIRRINDULARITZA**

32 txirrindulari izango ditu aurten Dorletako Ama taldeak

**LEHEN ERRONKA**

Beasainen erakutsiko du taldeak bere maila lehenengoz, datorren zapatuan

**MIREN ARREGI** > GATZAGA

Dorletako Amari lore eskaintza egin ostean eta haizealdiaren lehen ufadek Gatzaga astintzen zuten bitartean egin zuen denboraldi berriko taldeen aurkezpena Dorletako Ama txirrindulari taldeak. Horrek esan gura du oraingo urtean taldea ordezkatuko duten txirrindulariak ezagutzera eman zituztela. Guztira 32 gazte arituko dira Dorletako Aman; Arrasate, Aretxabaleta, Eskoriatza eta Aramaiokoak. Zapatuan Gatzagan aurkeztu zituzten errepideko txirrindularitzan arituko diren infantil, kadete eta jubenil kategoriatako taldeak; mendi bizikletan arituko direnak eta ziklo krosean arituko dena. Nahiz eta 32 lagun diren denboraldian taldean arituko direnak, ez dute nahi bezain beste txirrindulari: "Infantil mailan nahiko eskas gabiltza, izan ere, bi lagun bakarrik ditugu taldean. Ez dira garai onak txirrindularitzarentzat; oso zaila egiten zaigu jendea aurkitzea" esan zigun Gatzagako txirrindulari taldeko lehendakari Isaac Kortabarriak. "Mendiko bizikletako taldea osatuta dago, baina errepideko txirrindularitzan geroz eta jende gutxiago dago" gaineratu zuen. Mendiko bizikletan eta errepidean jubenil eta kadete mailetan emaitza onak aurreikusten dituzte arduradunek.

**ESANAK**

"Kadete eta jubenil mailetan talde oso onak ditugu eta horiekin emaitza onak lortzea espero dugu denboraldi berrian"

**Isaac Kortabarria** > Lehendakaria

"Krisiaren eraginez babesleak galdu ditugu; batzorde berriak lan egin beharko du babesleak lortu ahal izateko"

**Isaac Kortabarria** > Lehendakaria

**BATZORDE BERRIA**

Bestalde, berrikuntzak ere iritsi dira taldera, izan ere, batzordea guztiz berritu dute. "Aurtengo berritasuna batzorde aldaketa da; saiatuko gara lana ahalik eta ondoen egiten. Lan handia izango dugu babesleak bilatzen, beste batzuen artean" jakinarazi zuen Kortabarriak. Izan ere, Gatzagako taldeak iaz baino bi babesle gutxiago izango ditu aurten. Urte askoren ondoren taldea babesten jarraituko dutenak honako hauek dira: Alejandro Altuna, Lizarralde Kirolak, Grupo SEIN eta CDR.

Zapatuan taldeak aurkeztuta, infantilak izan ezik, beste talde guztiak datorren astean izango dute euren lehen erronka Beasainen. Hain justu zapatuan zuten lehen proba bertan behera geratu zen.




Dorletako Ama taldean arituko diren txirrindulariak aurkeztu zituzten zapatuan Gatzagan. JOSETXO ARANTZABAL

## Ziklistak

**INFANTILAK ERREPIDEA**
- > Josu Kortabarria.
- > Iker Mendikut.

**KADETEAK ERREPIDEA**
- > Jon Ander Kortabarria.
- > Asier Uroz.
- > Adrian Ugalde.
- > Danel Sagasta.
- > Ruben Carmona.
- > Gaizka Beloki.

**KADETEAK MENDI BIZIKLETA**
- > Julen Aperribai.
- > Beñat Burgi.
- > Andoni Sanchez.
- > Mikel Beloki.
- > Julen Axpe.
- > Adrian Oruna.

**GAZTEAK ERREPIDEA**
- > Markel Juaristi.
- > Gorka Gorosarri.
- > Alex Altuna.
- > Ibar Gartzia.
- > Rafa Cordero.

**GAZTEAK, SUB 23 ETA ELITE**
- > Raul Perez.
- > Martin Berrizbeitia.
- > Andoni Gartzia.
- > Iker Eskibel.
- > Alex Aranburu.
- > Anaitz Alvarez.
- > Markel Uriarte (Sub 23).
- > Aritz Kortabarria (Elite).

**ELITE ZIKLO-KROSA**
- > Felix Zugasti.
- > Zigor Urain.
- > Iñigo Roldan.
- > Oscar Oncala.
- > Igor Baz.

**HIRUGARREN MAILA** > UDA-LAUDIO

# Defentsan lan ikaragarria eginez, arerio zuzena menderatu zuen Aretxabaletak

Gordobilen taldeak ez zuen hutsik egin atzeko lerroan eta Laudio menderatu zuen

Borjak egin zuen gola 15. minutuan, falta erdiraketa buruz errematatu ondoren

UDA
**1-0**
LAUDIO

**Aretxabaleta** > Eden, Kerman, Andoni, Borja, Gorka, Haritz, Julen, Aitor, Oinatz, Iker eta Imanol.

**Laudio** > Jose Carlos, Garmendia, Alain, Larrainzar, Gartzia, Otegi, Perez, Anton, Zidai, Iker eta Agirre.

**Epailea** > Zubiau jaunak zuzendu zuen Ibarra futbol zelaiko partidua. Gomez eta Delgado jaunek egin zituzten marrazain lanak.


Aretxabaletako jokalariak Borjak sartutako gola ospatzen. JOSETXO ARANTZABAL

**MIREIA BIKUÑA** > ARETXABALETA
Defentsa izan da Aretxabaletaren lerro ahulena azken partiduetan, baina atzo beste itxura bat eman zuen. Lan ikaragarria egin zuen, eta inportantea izan zen garaipena lortzeko. Bigarren zatian berdinketa lortzeko arabarrek estutu egin zutenean, ez zuten hutsik egin. Hala, Borjak lortutako gola nahikoa izan zen hiru puntuak eskuratzeko eta sailkapenean lasaiago ibiltzeko. Azken sei puntuak lortuta, 33 ditu Aretxabaletak. Lasaiago daude orain. "Inportantea zen Laudio menperatzea, sailkapenean euren aurretik jarraitzeko. Azken bi garaipenak garrantzitsuak izan dira", dio Gordobilek.

ESANAK

**"Aurreko akatsak zuzenduz, defentsan asko estutu dugu; baina oso nekatuta bukatu dugu"**

**"Gogotsu jokatzen badugu, partidu gutxi galduko ditugu. Azken bi partiduetako bidetik jarraitu behar dugu"**

**Igor Gordobil** > Entrenatzailea

**AZKEN MINUTUAK OSO LUZEAK**
Aretxabaletak abantaila hartu ondoren, aukera bat edo beste izan zuen beste golen bat egiteko. Baina, joko aldetik Laudiok erakutsi zuen jarrera hobea. Bigarren zatian, aukera garbia izan zuen Oinatzek, Imanolek eta Aritzek egindako jokaldian, baina ez zen errematera heldu.

Azken minutuetan asko sufritu zuen UDAk. Oso luzea egin zitzaion partiduko azken zatia. Etxeko jokalari batzuek giharretako minarekin bukatu zuten. Baina, inportanteena puntuak ziren. "Gogotsu jokatzen badugu, partidu gutxi galduko ditugu. Azken bi partiduetako bidea jarraitu behar dugu", esan zigun Gordobilek.



JOSETXO ARANTZABAL

## Mondrako neskek sendo jarraitzen dute igoera faseko lehen tokian

Mondrak Arizmendiren kontrako derbi interesgarria irabazi zuen zapatuan Mojategin, 2-1. Igoera faseko partidua zen, eta puntuak inportanteak ziren bi taldeendako; baina, batez ere, arrasatearrendako, sailkapeneko lehen lekuan jarraitzeko. *Txisku*ren neskek ez zuten hutsik egin eta aretxabaletarrek baino gehiago jokatu zuten. Hiru puntuekin, eta gainerako partiduak bertan behera geratu zirela kontuan hartuta, Mondra lehena da 15 punturekin. Arizmendik lau puntu ditu.

**FUTBOLA** > OHOREZKO ERREGIONAL MAILA

## Mondrak eta Bergarak ezin izan zuten atzo jokatu, epailerik ez zegoelako

Haizealdiak zapatu arratsaldean bertan behera utzitako partiduak Aste Santuan jokatu beharko dituzte

**M.B.** > BERGARA
Haizealdiaren ondorioz Eusko Jaurlaritzak egubakoitzean kaleratu zuen debeku-oharra ezagutu bezain azkar, Mondrako eta Bergarako ordezkariak lanean jarri ziren euren partiduak atzo arratsaldean jokatu ahal izateko.

Hernani eta Trintxerpe futbol taldeko ordezkariekin berba egin ondoren, atzo arratsaldean jokatzea adostu zuten. Baina federazioak ezezkoa eman zien epailerik ez zegoela argudiatuz. "Esan digute zapatuan atzeratu ziren partidu guztietarako epailerik ez dagoela, eta guztiei ezezkoa ematea erabaki dute", esan zigun Bergarako entrenatzaile Manu Diazek.

**ASTE SANTUAN**
Ezezkoaren ondoren data bila hasi beharko dute talde guztiek. Oraindik ez dute egunik zehaztu, baina, ziurrenera, Aste Santuan jokatu beharko dituzte. "Aste Santuan bi aste bukaera ditugu libre, eta horietako baten jokatu beharko dugu", dio Mondrako entrenatzaile Andoni Azkargortak.

Mahoneroen asmoa da atzeratutako partidua Ostegun Santuan jokatzea, baina federazioak erabaki beharko du.



Haizeak eserlekuetako bat irauli egin zuen eta bestea harmailetako teilatu gainera igo zuen. MIREIA BIKUÑA



Berdegunea zatitu egin zuen. M.B.



German Losada, Jabi Azpiazu, Josu Amondarain futbol batzordeko kideak, eta Oscar Carrascal teknikaria kalteak ikusten. M.B.



Sarea eusten zuten bi zutabe erori ziren kornerretako baten ondoan. M.B.

**FUTBOLA** > KALTEAK OÑATIN

# Haizealdiak txikizio handiak eragin zituen Oñatiko Azkoagain zelaian

Eserlekuetako bat harmailetako teilatu gainera igo zuen haizeak eta bi zutabe bota zituen

Aloñak eta Euskaldunak atzo arratsaldean jokatu beharreko partidua bertan behera utzi zuten

**MIREIA BIKUÑA** > OÑATI

Zapatuko haizealdiak gogor zigortu zuen Oñatiko Azkoagain futbol zelaia. Kalte asko eragin zituen, batez ere, eserlekuetan eta zelaiaren bulta osoan dagoen sarea eusten duten bi zutabetan. Ondorioz, bertan behera utzi zuten Aloña Mendik eta Euskaldunak atzo arratsaldean jokatu beharreko partidua. Orain lan handia dute zelaia txukuntzen.

**ESERLEKUA TEILATU GAINEAN**

Zapatuan 22:00etan joan zen futbol zelaia zaintzen duen Alex Martin Azkoagainera. 18:00etatik haize ufada indartsuak egon ziren Oñatin, eta urduri zegoen. Futbol zelaira heldu orduko konturatu zen zein zen egoera: bi eserlekuetako bat harmailetako teilatu gainera igo zuen haizeak, eta bestea irauli egin zuen. Bestalde, bulegoen ondoko korner aldean dauden bi zutabe – zelaiaren bueltan dagoen sarea eusten dutenak – lurrera bota zituen. Berehala deitu zion Jabi Azpiazu presidenteari.

**KALTEAK EGUN ARGIZ**

Gauean larria zirudienak, larriago ematen zuen egun argiz. Atzo, 10:00etan elkartu ziren batzordeko kideetako batzuek eta kirol teknikari Oskar Carrascal. Zelaiaren egoera ikusita – batez ere, eserlekuak sortzen zuen arriskua – partidua bertan behera uztea erabaki zuten.

Azpiazu presidenteak deitu zien telefonoz Euskaldunako eta federazioko ordezkariei, eta epaileari erabakiaren berri emateko.

ESANAK

"Astean zehar hainbat neurri hartu ditugu, zelaiaren bueltan dagoen sareak ihes ez egiteko; ez genuen halakorik espero"

**Jabi Azpiazu** > Presidentea

"Lan handia daukat orain; futbol zelaian hormigoizko txintxorrak eta bridak daude, eta berdegunea apurtuta dago"

**Alex Martin** > Zaintzailea

**SASKIBALOIA** > LEHEN AUTONOMIKOA

# Defentsako lana gogortu zuenean menderatu zuen Aloña Mendik partidua

Entrenatzaileak errieta egin zien bizkaitarrek sei puntuko tartea hartu zutenean

Handik aurrera 14-0ko partziala egin zuten etxekoek eta aurretik jarri ziren berriro ere

ALOÑA MENDI
**83-71**
GETXO

**Aloña Mendi** > Ales (12), Jagoba (26), Ander (6), Biain (18), Iñigo (10), Beñat (7), Eneko, Iban (2), Mikel, Ibai eta Aidan (2)..

**Getxo** > Olabarri, Camiruaga, Zenigaonaindia (21), De la Vega (11), Alcodori (11), Unibasco, Doval (5), Calvo (6), Iribarren, eta Rey (17).

**Laurdenetako emaitzak** > Lehen laurdena: 21-13. Bigarren laurdena: 39-32. Hirugarren laurdena: 53-57. Laugarren laurdena: 83-71.

**MIREIA BIKUÑA** > OÑATI

Hirugarren laurdena bukatzeko minutu bat geratzen zen. Getxo aurretik zegoen markagailuan, 51-57. Aloñako entrenatzaile Xabi Igartuak hutsartea eskatu zuen. "Ondo defendatu behar dugu! Ezin dugu horrela jarraitu! Aupa mutilak, 11 minutu falta dira eta buelta eman behar diogu egoerari", esan zien oso haserre etxeko jokalariei.

Errietarekin iratzarri egin ziren Aloña Mendiko jokalariak, eta defentsa gogortu egin zuten – aipagarria Mikel Biainek egindako lana, bai erasoan eta baita defentsan ere –. Bizkaitarrek ez zuten saskiratzerik egin laugarren tarteko laugarren minutura arte. Ordurako oñatiarrek buelta eman zioten markagailuari, eta 67-59 zeuden aurretik.

Handik aurrera, abantaila mantendu zuten, eta, gehienez ere, 12 puntu egon ziren aurretik (72-60 bukatzeko lau minutu falta zirenean, eta 83-71 partidu bukaeran).

Oñatiarrek euren jokoa berreskuratu zuten azken tartean (30 puntu egin zituzten, eta bizkaitarrek 14), eta lidertzari eusteko garaipen inportantea lortu zuten. Dena den, lehen bi laurdenetan asko sufritu zuten.

**GEHIENEZ, HAMAR PUNTU**

Aloñaren eta Getxoren arteko partiduko lehen hiru minutuak oso parekatuak izan ziren. Bi taldeek asmatu zuten erasoan. Baina oñatiarrek erritmoa handitu eta hamar puntuko abantaila lortu zuten (17-7). Getxoko entrenatzaileak hutsartea eskatu zuen, baina bizkaitarrek ez zuten asmatu. Igartuaren mutilek hamar puntuko errentarekin bukatu zuten lehen tartea.

Bigarrenean ere oñatiarrek menderatu zuten partidua. 10-11 puntuko tartea mantendu zuten bosgarren minutura arte. Bizkaitarrek orduan estutu egin zuten eta lau puntura jarri ziren (31-27). Dena den, Aloñak zazpi puntuko abantaila zuen atsedenean (39-32).

**BIZKAITARRAK AURRETIK**

Hirugarren tartean Getxoko jokalariek jokatu zuten hobeto. 3-10eko partziala eginez 42na berdindu zuten partidua hirugarren minutua bete orduko. Urduri, etxekoek bost puntuko tartea zabaldu zuten (51-46) berriro; baina, Getxok 0-9ko partziala egin zuen eta lehen aldiz jarri zen aurretik markagailuan (51-52). Orduan eskatu zuen hutsartea Igartuak eta taldeak erreakzionatu egin zuen.



Iban Lizarralde oñatiarra barneratzea egiten. JOSETXO ARANTZABAL

HAIZEALDIAREN ONDORIOAK

## Kantxa berdean hasi eta urdinean bukatu

Haizealdiaren eraginez argiarekin arazoak eduki zituzten Zubikoako kantxa berdean zapatuan. Saskibaloi partiduan zehar hainbat aldiz itzali zen argia, baina bi taldeetako ordezkariek eta epaileek jokatzen jarraitzea erabaki zuten. Baina, lehia bukatzeko 03:38 falta zela kiroldegia argi barik geratu zen, eta kalean ilun zegoenez, ez zegoen lehiarekin jarraitzeko modurik. Kiroldegiko harreragilearekin kontsultatu ondoren, azken minutuak kantxa urdinean jokatzea erabaki zuten. Markagailua kontrolatzeko aparailuak eta 24 segundoko bi markagailuak hartuta, kantxa urdinean bukatu zuten lehia, zaleen txalo artean.

**Iñigo Zabaleta** >
Aloñako jokalaria

## "Ez dugu igoeraz berba egiten, partiduz partidu joango gara"

**M.B.** > OÑATI

**Sufrituta irabazi zuen Aloñak zapatuan. Baina, jokalariek bazekiten puntu inportanteak zirela lidertzan jarraitzeko. Iñigo Zabaletak igoerako kontuak egiten hasi aurretik, partiduz partidu joango direla esan zigun.**

**Kostata, baina irabazi egin duzue.**

Jokalari batzuen bajak genituen, eta Getxo sailkapenean gu baino atzerago dagoen arren, bagenekien zaila izango zela.

**Entrenatzailearen errietak on egin dizue?**

Bai. Sei puntu aurretik jarri direnean, defentsa indartu dugu, eta hor egonda partidua irabazteko kakoa.

**Halako partiduak irabazi beharko dituzue igoera lortzeko.**

Bai, badakigu. Ezin dugu hutsik egin, baina oraindik asko falta da. Gure artean ez dugu igoeraz asko berba egiten, partiduz partidu joan nahi dugu.


M.B.

## Lehiako azken sei minutuetan erabaki zuen Verkol Aloñak

Verkol Aloñak 26-22 irabazi zuen Aiala Zarautzen kontrako partidua zapatuan. Oso parekatua izan ziren lehen zatia (16-14 atsedenean), eta bigarren zatiko 24 minutu. Azken sei minutuetan defentsa eta erasoa indartu ondoren, lau goleko errentarekiin erabaki zuten partidua.



JOSETXO ARANTZABAL

> ESKUBALOIA

## Ford Mugarriren partidua bertan behera geratu zen

Haizealdiak bertan behera utzi zuen zapatuan Ford Mugarrik eta Egiak Iturripen jokatu beharreko partidua. Arrasateko Udalak erabaki zuen 14:00etan kiroldegia ixtea, eta partidua jokatzeko leku barik geratu ziren arrasatearrak.

Edu Orgaz entrenatzaileak esan digu ez dakitela noiz jokatuko duten lehia. Igoerako postuak zehazteko partidu erabakigarria izan daiteke.



JOSETXO ARANTZABAL

## Gipuzkoako igeriketa txapelketa Bergaran

Gipuzkoako igeriketa txapelketak jokatu zituzten zapatuan eta atzo Bergarako Agorrosinen. Hain zuzen ere, infantil, gazte eta promesen mailetako neguko txapelketak jokatu zituzten. Maila ona eman zuten parte-hartzaile guztiek, eta igerilari batzuek Euskadiko txapelketarako gutxieneko markak lortu zituzten.

**PALA** > EMAKUMEEN GOMAZKO KUTXA SARIA

# Muneta-Serrak eta Etxeleku-Arotzenak jokatuko dute frontoi motzeko finala

Biek ala biek lortu zituzten Tolosako Beotibarrerako txartelak Bergarako frontoian jokatutako finalerdietan

**MIREIA BIKUÑA** > BERGARA

Frontoi motzeko emakumeen gomazko Kutxa Sariko finalerdiak jokatu zituzten atzo Bergarako frontoian. Euren partiduak irabazita Muneta-Serrek eta Etxeleku-Elgezabalek jokatuko dute txapelketako finala. Zapatuan izango da 18:00etan Tolosako Beotibarren.

**LEHENA PAREKATUA...**

Bi partiduak oso ezberdinak izan ziren. Lehena parekatua izan zen eta bi bikoteek joko ona erakutsi zuten. Etxeleku-Arotzena bikoteak menderatu zuen partidua, eta une oro, bizpahiru tantoko abantaila mantendu zuten. Elgezabal-Ruiz de Larramendi bikotea ahalegindu zen arren, ez zuen aukerarik izan lehia irabazteko. Ruiz de Larramendi atzelariak huts gehiegi egin zituen.



Etxeleku pilota astintzen gainerako pilotariak begira dituela. MIREIA BIKUÑA

**... BIGARRENA AZKARRA**

Bigarren lehia azkarragoa izan zen. Bi atzelariek huts asko egin zituzten. Munete-Serre bikoteak lehia menderatu arren, Espinar-Bordagarai bikoteak eskura izan zuen finala; baina, azken tantoa huts egin zuten.

## Futbola

### 3. MAILA

**Sailkapena**

| | Punt. | Jokat. |
|---|---|---|
| 1. **Amorebieta** | **58** | 28 |
| 2. **Real Sociedad B** | **53** | 27 |
| 3. **Elgoibar** | **47** | 28 |
| 4. **Portugalete** | **46** | 28 |
| 5. **Zamudio** | **44** | 28 |
| 6. **Amurrio** | **43** | 28 |
| 7. **Beasain** | **43** | 28 |
| 8. **Cultura de Durango** | **42** | 28 |
| 9. **Gernika** | **42** | 28 |
| 10. **Basconia** | **39** | 28 |
| 11. **Arenas Getxo** | **38** | 28 |
| 12. **Zalla** | **35** | 28 |
| 13. **Santurtzi** | **34** | 27 |
| 14. **Leioa** | **34** | 27 |
| 15. **Lagun Onak** | **33** | 28 |
| 16. **Aretxabaleta** | **33** | 28 |
| 17. **Eibar** | **32** | 28 |
| 18. **Laudio** | **29** | 28 |
| 19. **Retuerto Sport** | **23** | 28 |
| 20. **Salvatierra** | **9** | 28 |

**Emaitzak**

| | |
|---|---|
| Leioa-Santurtzi | bertan behera |
| Retuerto-Arenas | 1-2 |
| Amorebieta-Eibar | 3-1 |
| Real Sociedad B-Lagun Onak | b.b. |
| **Aretxabaleta**-Laudio | 1-0 |
| Salvatierra-Zalla | 1-2 |
| Amurrio-Gernika | 1-0 |
| Portugalete-Beasain | 0-0 |
| Elgoibar-Durango | 1-0 |
| Zamudio-Basconia | 1-1 |

**Hurrengoa**

Zalla-**Aretxabaleta**

### OHOREZKO ERREGIONAL MAILA

**Sailkapena**

| | Punt. | Jokat. |
|---|---|---|
| 1. **Pasajes** | **50** | 22 |
| 2. **Zarautz** | **45** | 22 |
| 3. **Aurrera Ondarroa** | **44** | 22 |
| 4. **Idiazabal** | **36** | 22 |
| 5. **Tolosa** | **36** | 22 |
| 6. **Oiartzun** | **34** | 23 |
| 7. **Ordizia** | **31** | 22 |
| 8. **Aloña Mendi** | **30** | 22 |
| 9. **Bergara** | **29** | 22 |
| 10. **Berio** | **29** | 22 |
| 11. **Trintxerpe** | **29** | 22 |
| 12. **Hernani** | **26** | 22 |
| 13. **Mondra** | **26** | 21 |
| 14. **Hondarribia** | **24** | 22 |
| 15. **EHU Vasconia** | **23** | 22 |
| 16. **Euskalduna** | **23** | 22 |
| 17. **Beti Gazte** | **18** | 23 |
| 18. **Real Union** | **17** | 22 |

**Emaitzak**

| | |
|---|---|
| Berio-Aurrera | bertan behera |
| **Aloña Mendi**-Euskalduna | b.b. |
| **Bergara-**Trintxerpe | b.b. |
| Tolosa-EHU Vasconia- | 1-0. |
| Hondarribia-Idiazabal | b.b. |
| Pasajes-Zarautz- | b.b. |
| Real Union-Ordizia | b.b |
| **Mondra**-Hernani | b.b. |
| Beti Gazte-Oiartzun | 1-3 |

**Hurrengoak**

Aurrera-**Aloña Mendi**
Euskalduna-**Bergara**
Ordizia-**Mondra**

### BESTE KATEGORIAK

**GAZTEEN LIGA NAZIONALA**

| | |
|---|---|
| Durango-Aretxabaleta | bertan behera |

**GAZTEEN EUSKAL LIGA**

| | |
|---|---|
| Bergara-Lengokoak | b.b. |

**ERREGIONAL PREFERENTEA**

| | |
|---|---|
| Getariako-Antzuola | b.b. |
| Zestoa-Aretxabaleta | b.b. |

**LEHEN ERREGIONALA, IGOERA**

| | |
|---|---|
| Mondra B- Sto Tomas Lizeoa | b.b. |

**LEHEN ERREGIONALA, KOPA**

| | |
|---|---|
| Ikasberri-UDA Arizmendi | b.b. |

**GAZTEEN OHOREZKO MAILA, KOPA**

| | |
|---|---|
| Mondra-Union Txiki | 1-2 |
| Aloña Mendi-Hondarribi | b.b. |

**GAZTEEN LEHEN MAILA, IGOERA FASEA**

| | |
|---|---|
| Aretxabaleta Arizmendi- Amaikak Bat | b.b. |

**GAZTEEN LEHEN MAILA, KOPA**

| | |
|---|---|
| Soraluze-Arizmendi | b.b |
| Urola-Bergara | b.b |

**KADETEEN OHOREZKO MAILA, IGOERA**

| | |
|---|---|
| Aretxabaleta Arizmendi-Zumaiako | 0-1 |
| Bergara-Ordizia | b.b. |

**EMAKUMEZKOEN IGOERA FASEA**

| | |
|---|---|
| Mondra-Arizmendi | 2-1 |

**EMAKUMEZKOAK, KOPA**

| | |
|---|---|
| Urola-Aloña Mendi | b.b. |

## Eskubaloia

### MAILAZ MAILA

**EUSKADIKO SENIORRAK, GIZON.**

| | |
|---|---|
| Ford Mugarri-Egia | bertan behera |

**EUSKADIKO SENIORRAK, EMAKUME.**

| | |
|---|---|
| Verkol Aloña- Aiala Zarautz | 26-22 |

**LEHEN TERRITORIAL MAILA**

| | |
|---|---|
| Soraluze BKE-Elgoibar | 21-29 |
| Izarraitz-Hegialde Auto | 19-28 |

**BIGARREN TERRITORIALA**

| | |
|---|---|
| Arrasate-Groseko | b.b. |

**FEDERAZIO SARIA**

| | |
|---|---|
| Hondarribia-Bergara Soraluze | b.b |
| Leizaran-Aloña Mendi | b.b. |

**FEDERAZIO SARIA, EMAKUMEZKOAK**

| | |
|---|---|
| Verkol Aloña-Citroem Chapime | 33-8 |

**ALDUNDIKO TORNEOA, GAZTE MUTIL**

| | |
|---|---|
| Talleres Chapime-Amenabar | b.b. |
| Bera Bera-Verkol Aloña | b.b. |

## Saskibaloia

### MAILAZ MAILA

**SENIOR AUTONOMIKOA**

| | |
|---|---|
| Aloña Mendi-Getxo | 83-71 |

**SENIOR EMAKUMEZKOAK**

| | |
|---|---|
| Krafft Atletico-Eskoriatza | 39-53 |

**GAZTEAK, EUSKAL LIGA**

| | |
|---|---|
| MU-Santurtzi | b.b. |

## errugbia

### MAILAZ MAILA

**SENIOR EMAKUMEZKOAK**

| | |
|---|---|
| La Unica-Arrasate | bertan behera |



Harmailatik

Debagoieneko kirola GOITBn

Astelehenero 22:15ean.

Goitb Goiena Telebista
Ikustekoa!


Arrasateko Dragoi taldeko kideak, euren koreografiaren zati bat egiten. NAROA ODRIOZOLA



Tolosa CF taldekoak ikuskizuna hasi aurretik. NAROA ODRIOZOLA


Ipurua taldeko gimnastak (Eibar) koreografia amaitu ostean. NAROA ODRIOZOLA

**GIMNASTIKA ERRITMIKOA** >TXAPELKETA

# Urduritasuna nagusi B mailako eskola arteko txapelketan

## Gipuzkoako hainbat herritako gimnastek parte hartu zuten zapatuko txapelketan

## Labegaraietan (Bergaran) jokatu zuten alebin eta infantil mailakoen txapelketa

**NAROA ODRIOZOLA** > BERGARA
Zapatuan B mailako eskola arteko txapelketa jokatu zuten Bergaran. Gipuzkoa osoko gimnastak joan ziren Labegaraietara; Tolosa, Arrasate, Eibar…

10:30ean zuten hitzordua, hala ere, ordubete lehenago iritsi ziren Labegaraietako kiroldegira berotketekin hasteko.

Alebin, infantil eta benjamin mailako kirolariek zeukaten hitzordua, baina benjaminen txapelketa bertan behera utzi zuten.

Azken minutura arte koreografia entseatzen aritu ziren gaztetxoak. Ilea jaso, jantziak jarri eta makillatu ere egin behar dira gimnastak tapizera irten aurretik. Izan ere, koreografiaz gain, horiek ere kontuan hartzen ditu epaimahaiak.

Tapizera lehenengoak irteten alebin mailako taldeak izan ziren, eta gero, maila bereko banakakoak. Jarraian, infantilak irten ziren, taldeka lehenengo eta banaka gero. Benjamin mailakoek ere lehiatu behar zuten, baina bertan behera utzi zuten haiena.

Erritmo biziak erabili zituzten eta hainbatek uztailez eta pilotaz lagundu zituzten dantzak. Gainera, euren jantziekin kolorez bete zuten kiroldegia. Urduritasunez beteriko goiza izan zen zapatukoa eta gimnasta gazteen aurpegietan nabaria zen hori. Baina gimnastak ez ezik, entrenatzaileak ere urduri zeuden.

Epaimahaia gimnasta izandakoek eta gimnasia erritmikoan adituak direnek osatu zuten. Eta alebin zein infantil mailetan, Tolosak irabazi zuen txapelketa.

Orokorrean ikuskizun polita eskaini zuten gaztetxoek eta zela ez, ez zen falta izan haien gurasoen presentzia harmailetan, giroa piztuz.


Jakintza taldeko gimnastak (Tolosa) N.O.

ZEIN EMAITZA ESPERO DUZU LORTZEA TXAPELKETAN?


**Leire Elola**
Tolosa CF taldea

Azken entrenamendua egiten zebilela hitz egin genuen Leirerekin, Tolosa CF taldeko gimnastetako bat. Zera esan zigun: "Ondo egitea espero dut, baina tapizera irten arte ez dakit nola irtengo zaidan".


**Ainara Aymat**
Xingola taldea

Lehiatzera irten aurretik elkartu ginen Ainararekin. Hori ere, azken entsegua egiten zebilen. Aymatek esan zigunez, ez zekien zer espero txapelketaz eta ez zuen irabazle izateko faboritorik.


**Aintzane Agirre**
Berabieta taldea

Berabieta taldeko Aintzane Agirrerekin tapizera irten ondoren egon ginen. Urduritasuna alde batera utzi ondoren, "ondo irten zait dena, baina ez dakit zer gertatuko den" esan zigun.


**Leire Mendigai**
Usturpe taldea

Leire Mendigairekin azken entseguko atsedenaldi batean hitz egin genuen. Oso urduri zegoen Mendigai eta esan zigunez, asko entrenatu du eta horregatik ondo egitea espero zuen.


**Edurne Ezeiza**
Usturpe taldea

Edurnerekin hitz egiteko atsedenaldi txiki bat aprobetxatu genuen. Ezeizak ere, asko entrenatu duela esan zigun eta ondo egiteko itxaropena zuela adierazi zuen Usturpe taldeko kideak.

Ane Coranti eta Ane Remedios > Fisioterapeutak

# "Gimnasia hipopresiboaren onurak igartzeko konstanteak izan behar dugu"

XABIER URTZELAI > BERGARA

**Ane Remediosek (Aretxabaleta, 1986) eta Ane Corantik (Bergara, 1986) berbaldi interesgarriak egin dituzte aste barruan Bergaran. Berbaldiok kirol jarduera osasuntsuaren gainekoak izan dira, eta galdera honi erantzuten ahalegindu dira: "Kirolak kanpoaldea moldatzen digu, baina zer gertatzen da barnealdean?". Hori dela eta, gimnasia abdominal hipopresiboak dituen onurak azaldu zituzten.**

**Kirola egitea osasuntsua dela entzun dugu behin eta berriro, baina komeni zaigun kirol jarduera egiten badugu.**

Bai; hori da aste barruko saioetan azaltzen ibili garena. Helburua ez da izan kirol jarduera bakoitza banan-banan aztertzea. Orokorrean, inpaktuzko kirolen gainean ibili gara berbetan: korrika egitea, futbolean jokatzea, tenisean... Eta inpaktuzko jarduera horiek gure barnean ze eragin duten, batez ere emakumezkoengan.

**Kirol jarduerak hobeto egiteko, eta bizitzako beste arloetarako gerrialdea eta sabelaldea landuta izateak duen garrantzia azaldu duzue. Baina gimnasia hipopresiboaren onurak azpimarratuta.**

Pausoz pauso joango gara, ondo azaltzeko. Gimnasia abdominal hipopresiboa ariketa batzuetan oinarritzen da, eta Marcel Caufriez belgikarrak asmatu zituen, hasiera batean, haurdunadi ostean emakumeek zoru pelbikoa mindu barik sabelaldea indar zezaten. Eta ondoren konturatu ziren ariketa horien onurak askoz ere orokorragoak zirela.

**Adibidez?**

Abdomena eta zoru pelbikoa tonifikatzearekin batera gorputz osoko giharretako tonua normalizatzen du, eta zirkulazioari ere mesede egiten dio, gorputzeko ehunak oxigenatuta.

**Zer esan nahi du hipopresibo izateak?**

Gimnasia abdominala zer den garbi dago, baina hipopresiboa beste kontzeptu bat da, guztiok abdominalak lantzeko ezagutzen ditugun ariketekin zerikusirik ez duena. Hipopresiboaren kontrakoa hiperpresioa da; hain zuzen, gainontzeko kirol jarduerak lantzen ditugunean gorputzak *sufritzen* duen presioa, baita ariketa abdominal ohikoak egiten ditugunean ere. Laburtuz, ariketa hipopresiboarekin orekatu egiten dugu presio hori.

**Lehenago aipatu dugun zoru pelbikoa babestea da gimnasia hipopresiboaren onura bat.**




Ane Coranti eta Ane Remedios, eguenean, Migel Altuna institutuan egindako berbaldiaren ondoren. Jendez lepo bete zen aretoa. XABIER URTZELAI

Halaxe da. Zoru pelbikoak gorputzeko organo askori eusten die, eta emakumeek sufritzen duten gaitzetako bat da zoru pelbikoaren askatzea. Gizonezkoekin alderatuta, emakumeek bagina dugunez hutsarte horrek errazten du pelbisaren askatzea, eta horregatik da garrantzitsua zona hori indartuta izatea.

Hala, gaur egun egiten ditugun inpaktuzko ariketa askok kalte egiten diote zoru pelbikoari, eta gimnasia hipopresiboaren helburua da hori tonifikatzea.

**Zelan egiten da hori?**

Ariketa hipopresiboak eginez gorputza ohituko dugu inkontzienteki abdominaletako eta perineoko giharrak aktibatzera. Hori, baina, landu egin behar da, gorputzak ez duelako egun batetik bestera lan hori inkontzienteki egingo.

Hainbat ariketa hipopresibo daude, eta ariketok egunean 20 minutuz egiten baditugu 3-4 hilabetean nabarmena da hobekuntza. Ez bakarrik gorputzaren barnealdean, baita begi-bistara ere; sabelaren bolumena txikitu egiten da, ohiko abdominalekin lortzen ez dena.

**Aipatu duzue, baina, hobekuntzak ez direla emakumezkoendako bakarrik.**

Halaxe da. Gimnasia hipopresiboa ona da haurdunaldi osterako, abdominalak tonifikatu nahi dituenarendako, gernu-ihesak dituztenendako, gaixotasun baskularrak dituztenendako, gorputz posturak zuzendu nahi dituztenendako, problema erritmikoak zuzentzeko, herniak dituztenendako, idorreria dutenendako eta baita, lehen esan dugun moduan, inpaktuzko kirolak egiten dituztenendako.

**Esan duzuenez, kirol jardueretan fisikoki hobetzeko ere balio du.**

Bai, inpaktuzko ariketen aurrean sabelalde eta gerrialdeak hobeto eutsiko diolako presio horri. Baina ez hori bakarrik. Ariketa hauekin izerdia botatzen da, gastu energetiko handia dauka eta metabolismoa handitzen du, errendimendu altuko jarduera baten parekoa delako. Eta pisua galtzen da –abdominaletako perimetroaren txikitzea dakar–. Baina onurak ez dira hor amaitzen, ariketa hauekin globulu gorrien kopurua handitu egiten delako, eta kirol jardueren aurrean fisikoki hobeto egongo garelako.

**Azpimarratu duzue kirol jarduera baten ondoren egin daitezkeen ariketa osagarriak direla.**

Halaxe da; korrika egitera joaten garenean edo futbol partidu bat jokatzen dugunean, komenigarria da ondoren luzatzeak ondo egitea. Eta luzatzeekin batera gure gomendioa da ariketa hipopresiboak ere egitea. Horrekin gorputzak jasan duen hiperpresioaren aurrean berriro oreka lortuko dugu.

**Laster hasiko zarete ariketa hipopresiboak zelan egin irakasten.**

Oraindik ez dugu erabaki taldeak zelan antolatuko ditugun, baina informazioa nahi duenak idatz dezala *sanefisioterapia@hotmail.es* helbidera.

NONDIK DATORREN

**"Gimnasia hipopresiboa haurdun zeuden emakumeek sabelaldea indartzeko asmatu zuten"**

GUZTIONDAKO

**"Garrantzitsua da zoru pelbikoa indartzea, gorputzeko organo askori eusten dielako "**

INKONTZIENTEKI

**"Ariketa eginez gorputza ohituko da inkontzienteki abdominaletako eta perineoko giharrak aktibatzera"**



Haurdun dagoen emakume bat bere bikotekidearekin. LKY A REFORESTAR!

**SEXUALITATEA** > SEXU HARREMANAK HAURDUNALDIAN

# Estimulazio sexuala, oxitozina lortzeko modu naturala ere bai

Haurdunaldian zehar sexu harremanak, orgasmoak edo sexu jolasak izateak fetuarengan eragin txarra izango duela beldurra baino ez da

**OIHANA ELORTZA** > ARRASATE

*'Sexaple' falta edo sexu pila haurdunaldian?* Izenburu horixe jarri dio Larraitz Arando sexologoak sexualitateari buruzko bere azken artikuluari. Eta hauxe da haren erantzuna: "Salbuespenak salbuespen, haurdunaldiak gehienetan bizitza sexuala ez du askorik aldatzen. Haurdunaldi aurreko bizitzan sexualki oso aktiboa izan denak haurdunaldian ere horrela jarraituko du, egoera berriko ezaugarrietara egokituz. Eta alderantziz, bizitza ez hain aktiboa duen horrek ez du ikaragarrizko aldaketarik nabarituko haurdunaldian".

**BELDURRAK**

Haurdunaldiko sexu harremanen inguruan beldurrak ere zabaldu dira, umeari zerbait txarra gertatuko ote zaion inguruan. "Haurdunaldi osasuntsuan, orgasmo edo besarkada kitzikagarri baten ondorioz, fetuak oxigeno igoera nabariko du. Sexu jolasetan diafragma zabaltzen zaigunez, oxigeno gehiago helduko zaio barruko umetxoari. Orgasmoarekin, berriz, sentitzen ditugun gihar mugimenduen bibrazioak iritsiko zaizkio eta sehaska baten kulunkaka gisa sentituko da haurra", dio Arandok.

Haurdunaldia hiru fasetan banatzen du hark eta fase bakoitzean emakumeak senti dezakeen sexu gogoaz idatzi du. "37. astetik aurrera edozein momentutan eman daiteke erditzea. Oxitozina da erditzearen probokatzaile nagusia. Estimulazio sexualaren bidez oxitozina hori modu naturalean sor dezakegu", dio amaieran.

> JAIOTZAK

## Ezkontzaz kanpoko jaiotzak lautik biderkatu dira azken urteetan Euskal Autonomia Erkidegoan

Eustatek emandako datuen arabera, 2008. urtean, ezkontzatik kanpo jaiotakoak 6.474 izan ziren EAEn. Jaiotzen %30,4; hots, 2007an (%27) baino ehuneko hiru puntu pasa gehiago. Arabak eta Bizkaiak Euskal Autonomia Erkidegoak baino ehuneko handiagoak izan zituzten, %30,9 eta %30,6; Gipuzkoak, berriz, balio erlatibo txikiagoak (%29,9). 1990. urtekoa (%7,7) eta 2008koa alderatuz gero, ezkontzaz kanpo jaiotakoak lautik biderkatu dira ia.

Amen adinari begiratuz, 2008an haurren bat izandako emakumeen %76,5ek 30 urte edo gehiago zituzten. Talderik ugariena 30 eta 34 urte bitarteko emakumeena da. Bestalde, 2008an jaiotakoen artean, 100 neskako 106 mutiko jaio ziren. Batez beste, 3.308 gramoko pisua izan zuten mutikoek eta neskek, 3.189koa. Erditzeak, berriz, 20.883 izan ziren: horietatik 20.375, ume bakarrarenak; 498, bikienak; eta 10, hirukienak.

> EUSKARA

## Hiru ikasletik batek ez du euskarazko maila ertaina eskuratzen Euskal Autonomia Erkidegoan

Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako ikasleen %32,9k euskararen gutxieneko ezagutza maila dute. Alegia, hirutik bat ez da ezagutza maila ertaina izatera iristen. Maila ertaina eskuratzen dutenak %36,6 dira eta maila aurreratura heltzen direnak %30,5. Horiek dira Isabel Celaa Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza sailburuak asteon eman dituen datuak. Iaz egin zuen azterketa Jaurlaritzak, ikasleen gaitasunak neurtzeko; LHko laugarren mailako eta DBHko bigarren mailako ikasleen gaitasunak aztertu zituen hizkuntza ereduaren arabera, emaitzak aldatzen dira. A ereduan ikasten dutenen %85,3k ez dute euskarazko ezagutzaren batez besteko maila lortzen eta %2,6 baino ez dira batez besteko euskara ezagutzaren maila gainditzen dutenak. D ereduan ikasten dutenen artean, %38,5 daude batez besteko euskararen ezagutza mailatik gora eta B ereduan ikasten dutenen artean, %22,3.

> SARE SOZIALAK

## 'Twitter' eta 'Facebook' sare sozialen bitartez ere jarrai daitezke 'Guraso.com' atariko albisteak

*Twitter* eta *Facebook* sare sozialen bitartez ere jarrai daitezke aurrerantzean *Guraso.com* atarian publikatzen diren albiste eta kolaboratzaileen artikuluak.

*Guraso.com* atariko berriek ahalik eta zabalkunde handien izatea da helburua, eta, egungo teknologiak eta Interneteko aukerak aprobetxatuz, sare sozialetara salto egin du atari horrek. *Guraso.com*-ek kontu bat zabaldu du *Twitter*-en eta beste bat *Facebook*-en, eta hantxe sartu baino ez dago atari digital horretan publikatzen, sareratzen, diren artikulu edo albisteak jasotzeko eta orrialdearen bilakaera jarraitzeko.

Hauexek dira bi sare sozial horietan sortu diren kontuak: *Twitter*-en *gurasocom* eta *Facebook*-en, berriz, *Guraso.com*. Hemendik aurrera, beraz, sartu bi kontu horietan, egin *Guraso.com* atariko jarraitzaile eta segi horko artikuluak irakurtzen.



Gizonezko bat, bi ume besartean dituela. BELLO7A

**DIRULAGUNTZAK** > NAFARROAKO GOBERNUA

# 600 euro hilean aitatasunagatik

Bigarren umea edo gehiago izan dituztenek dute aukera hori, hamar hilabeterako

**O.E.** > ARRASATE

Bigarren umea edo gehiago izan eta aitatasuna eskatzen duten Nafarroako aitek 600 euro kobratuko dute hilean, hamar hilabetean. Isabel Gartzia Malo Nafarroako Gizarte Gaietarako kontseilariak eman du albistea asteon, lana eta familia bateratzeko plangintzaren barruan. Gartzia Malok berak egin zuen Nafarroako Parlamentuan ageraldia egiteko eskaera. Jakinarazi zuenez, Nafarroako Gobernuak 2000. eta 2009. urteen artean 92 milioi jarri ditu jaiotza tasa, aukera berdintasuna eta zaintzaren partekatzea sustatzeko, eta urtero, batez beste, 7.000 lagunek jaso dute laguntzaren bat, modu batera edo bestera. Aiten %7,4k baino ez dute halako neurriren bat eskatzen; eta hiru amatik batek eskatzen du (%33,6k). Amentzako laguntzak askoz txikiagoak dira; izan ere, egun, baimena eskatzen duten amei 417 euro ematen zaizkie.

Testu hauek osorik irakurtzeko eta erantzuteko,
**zatoz gure webgunera**
guraso.com



**> HARRERA BEROA**
Txalo zaparrada amaigabea Anduezaren dokumentalari > 30



**> MUSIKA ZURI-BELTZA**
Giro berezia piztu zuten Pettik eta Whitfield-ek Amaia Udal Antzokian > 31



**> FLAMENKOA GUREAN**
Flamenko ikastaroak eta ikuskizunak gureko aretoak betetzen > 32



Ainhoa Kaiero, Jokin Nabaskues, Itziar Larrinaga eta Patxi Olabarria. JOSETXO ARANTZABAL

# Ugarteren musika eta bizipenak guztion eskura

**TORRESOROA**
Alfonso Ugarteri buruzko liburua aurkeztu zuten atzo

**ANTZUOLA-LIZARRA**
Antzuolan jaio arren 21 urterekin Lizarrara joan zen bizitzera Ugarte

**ARRITXU BARRUSO** > ANTZUOLA

XIX. mendearen erdi aldera musika sakratuaren berrikuntzaren aldeko mugimenduak indarra hartu zuen Hego Euskal Herrian; elizetako musika duindu beharra zegoela uste zuten berritzaileek, ukitu profano gehiegi zituelako. Horixe izan zen, hain justu ere, Alfonso Ugarteren borroka eta horixe jasotzen du atzo Antzuolako Torresoroa aretoan aurkeztu zen *Alfonso Ugarte (1879-1937) eta musika sakratuaren berrikuntza Hego Euskal Herrian* liburuak.

2007an Antzuolako eta Lizarrako udalek hitzarmena sinatu zuten Eusko Ikaskuntzarekin Alfonso Ugarteri buruzko liburua idazteko. Beka bat eskaini zuten horretarako eta Ainhoa Kaiero Musikologian doktoreari egokitu zaio musikari antzuolarraren obra eta bizitzari buruzko liburua idaztea.

Hiru urtez gogor lan egin ostean liburuak argia ikusi du orain. Antzuolako Torresoroa aretoan egin zuten aurkezpen ekitaldia atzo eta bertan izan ziren Antzuolako kultura zinegotzi Patxi Olabarria, liburuaren egile Ainhoa Kaiero, Eusko Ikaskuntzako Musika Saileko lehendakari Itziar Larrinaga eta Alfonso Ugarteren biloba Jokin Nabaskues. Horiez gain, herritar talde polita elkartu zen.

**BERRITZAILEA ETA ABERTZALEA**

Atzoko ekitaldian argi geratu zen 1879ean Antzuolan musikari handi bat jaio zela eta urteak pasa ahala Euskal Herriko musikan, eta batez ere musika sakratuaren berrikuntzan bere aztarna utzi zuela. "Musika sakratuaren berrikuntzan lan izugarria egin zuen Alfonso Ugartek. Erreformaren ideiak zabaldu zituen Lizarran eta Nafarroa osoan. Mugimendu horretan gainera, aurrendaria izan zen", azaldu zuen Ainhoa Kaierok.

Dena dela, Ugarteren lana eta borroka ez zen musika sakratuaren berrikuntzara mugatu. Ezer baino lehen euskalduna eta abertzalea zen eta euskal kulturaren eta folklorearen alde lan handia egin zuen. "Obra asko idatzi zituen euskaraz. Lizarrara iritsi zenean talde abertzale bat sortu zuen Daniel Irujo eta Ibero eta Renteria aitekin. Gainera, dirudienez mendearen hasieran lehen euskal ereserkia sortu zuten Alfonso Ugarteren musikarekin, baina tamalez galdu egin da", adierazi zuen liburuaren egileak.

Dena dela Alfonso Ugarteren musika ezagutzeaz gain bere musika entzuteko aukera ere izan zen atzo Torresoroa aretoan. Antzuolako Txistulari Taldeak eta Ondarreko Gaiteroek musikari antzuolarrak txisturako konposatu zituen bi pieza jo zituzten: *A la notable banda familiar de txistularis, los Lascurain de Vergara* eta *Ordoiztik Etxartera Biribilketa.*

ESANAK

**"Lan izugarria egin zuen berrikuntzaren ideiak Nafarroan zabaltzen; elizetako musika errepertorioa aldatu zuen"**
**Ainhoa Kaiero** > Liburuaren egilea

**"Gure aitona oso gazte hil zen, baina ehun lan baino gehiago utzi zituen idatzita; lanerako gaitasun handia zuen"**
**Jokin Nabaskues** > Ugarteren biloba

BIOGRAFIA



Alfonso Ugarte. GOIENKARIA

## Alfonso Ugarte: eliz musikaren berritzaile

Alfonso Ugarte 1879an jaio zen Antzuolan baina gaztetan Lizarrara joan zen bizitzera. Aita abesbatza bateko kidea zen eta bere osaba Zumarragako Jasokundeko Ama birjinaren parrokiako organista. Ugartek osabarekin hasi zituen musika ikasketak eta Donostiako Arte Ederretako Elkarteko Musika Akademian amaitu zituen.

Musika sakratuaren berrikuntzan egin zuen ekarpenik handiena; lan izugarria egin zuen erreformaren idealak Lizarran eta Nafarroan zehar zabaltzen. Nazionalismo musikalean ere izan zuen zeresana. Daniel Irujo eta Ibero eta Renteria Aitekin talde abertzalea sortu zuen Lizarran. Dirudienez gainera, mendearen hasieran euskal lehen ereserkia sortu zuten Ugarteren musikarekin, baina tamalez galdu egin da.




Juanma Zaldua zuzendari laguntzailea, John Andueza zuzendaria eta Juanba Berasategi produktorea, filma hasi aurretik. JOSETXO ARANTZABAL.

**ZINEMA** > 'SIMPLEMENTE' FILMA

# Harrera beroa Arrasatek Anduezari

**NON:** Arrasateko Amaia antzokia.
**EGUNA:** Egubakoitza, otsailak 26.
**ZENBAT JENDE:** 700 lagun inguru.
**IRAUPENA:** Ordu eta erdi.

**MIREN ARREGI** > ARRASATE

Zirrara, harridura eta enpatia. Horiek izango dira seguru asko egubakoitzean John Andueza arrasatearraren *Simplemente* filma ikusi zuten 700 herritarren sentimenduetan gailendu zirenak. Sentimenduz, naturaltasunez, desiraz, hitzez eta espresio zintzoz betetako istorioa da *Simplemente*, dantza ikuskizun baten prestaketaren aurreko uneetan gertatzen direnetan oinarrituta, Down sindromea dutenen egunerokora hurbilduko gaituena. Dantza oinarria eta era berean aitzakia da, urritasun mota hori duten pertsonen egunerokoa azaltzeko.

**PROTAGONISTEK LAN BIKAINA**

Dani, Urtzi, Alberto, Saioa, Iñigo eta Ana dira Castro Urdialesko Oriñon hondartzan grabatutako filmaren protagonistak; pertsona burujabeak, egiazaleak, arruntak eta sentimenduz beteak; gainontzeko herritarrak legez maitemindu, deseatu, lagundu, solastu edota negar egiten dutenak. Protagonistak Leioako *Despertar los Sentidos* dantza taldeko gazteak dira, aktore lanetan lehen aldia bada ere, antzezle esperientziadun moduan lan egiten dutenak. Dantza ikuskizuna prestatzen ematen duten tarte horretan gertatzen direnekin ikuslegoa lagunarte maitagarri horrekin identifikatzea lortzen du Anduezak.

**ANDUEZA ERE ANTZOKIAN**

Filmeko protagonistek ez zuten egubakoitzean Amaia Udal Antzokian egoterik izan; ez zuen hutsik egin, baina, John Anduezak. Antzokian batu ziren herritarrei eskerrak emanez hasi zituen hitzak, zer esanik ez, filmeko protagonistak eta euren senitartekoak eskertu zituela bereziki. Herritarrek harrera beroa egin zioten bai Anduezari eta baita filmari ere. Hori argi geratu zen filma ikusten ari ginen bitartean ikusleen artean sortu ziren barre algara eta negar malkoekin. Eta zer esanik ez bukaerako txalo zaparradaz; txalo zaparrada amaigabea, ikuslegoari filma benetan gustatu zitzaionaren adierazle.

Umorez, sentimenduz eta gustuz egindako lana da *Simplemente,* inor axolagabe uzten ez duen horietakoa.

INKESTAK



**Igor San Juan**
Aretxabaleta

"Baneukan dokumentalaren berri eta gaia oso interesgarria iruditzen zitzaidan. Asko gustatu zait; bereziki irudiak gustatu zaizkit eta musikarekin nola uztartzen dituen pelikulak".



**Maria Eugenia Irazabal**
Antzuola

"Begiak ireki dizkit filmak. Lezio bat izan da. Harrituta gelditu naiz sentimenduak azaltzeko duten gaitasunaz; guk ezkutatzen ditugun gauzak eurek aurrez aurre esaten dituzte".



**Pilar Zubillaga**
Arrasate

"Asko ezagutzen dut John Andueza eta gaia ere oso polita iruditzen zait. Asko gustatu zait nola egituratuta dagoen filma eta kontatzen den istorioa. Aktoreen lanak ere harrituta utzi nau".



**Naiara Armendia**
Arrasate

"Familiak aspalditik ezagutzen du John Andueza. Gaia oso interesgarria iruditu zait eta filma oso polita. Down sindromea dutenek bizitzan moldatzeko duten gaitasunak utzi nau aho zabalik".

**DANBAKA**

## Danbakako irabazleen diskoak laister

The Wet Band eta Adi Holden taldeek Danbaka musika lehiaketa irabazi eta gero grabatutako diskoak kalean, martxoaren 11n

**M.A** > DEBAGOIENA

Martxoaren 11n aurkeztuko dituzte Donostian The Wet Band eta Adi Holden taldeek euren lehen diskoak. Badakizue, Danbaka musika lehiaketan parte hartu zutela biek ala biek. Mutrikuarrek epaimahaiaren saria eskuratu zuten –baita publikoarena ere– eta Adi Holdenek, berriz, Debagoieneko talde onenarena. Sariak zer izango, eta urtero moduan, taldeek disko bat grabatzeko eta plazaratzeko aukera.

Dagoeneko amaitu dute grabazioa talde biek eta ezagutu dituzte estudio baten sartu eta disko baterako abestiak grabatzearen nondik norakoak. Beti bezala Arrasateko Shot! estudioetan egin dituzte grabazioak, The Wet Bandek azaroan, eta Adi Holdenek urrian; azken ukituak eman ostean, martxoaren 11n izango ditugu kalean biak ala biak.

**BI PROPOSAMEN DESBERDIN**

Mutrikukoak dira The Wet Band taldeko kideak. Musikari gazteak izan arren, 70. hamarkadako rockaren eragin itzela dute euren lanek; hard-rocka, rock progresiboa, soula zein ukitu latinoak dituzten abestiak ere lantzen dituzte. Musika estilo bakoitzaren onenaz baliatzen dira, beraz, euren soinu eta identitate propioa sortzeko. Diskoan aurkituko ditugu *Flight* edota *Water resistant* bezalako kantuak, eta laupabost minutuko iraupena duten abestiak ere bai. Rockaren indarra duten pasarte instrumentalak, eta aho zabalik utziko gaituzten ahotsak.

Adi Holden talde bergararraren diskoak bestelako testuinguru eta tokietara garamatza; taldearen izen bera izango duen diskoan sartu dituzten abestiek 90eko hamarkadako musika *indie* edo independentearen kutsua dute.

Bi proposamen, Danbaka musika lehiaketaren hirugarren edizioak ahalbidetuta, laster entzungai izango ditugunak.

**KONTZERTUA** > PETTI ETA BARRENCE WHITFIELD

# 'We love' Petti eta Barrence Withfield

**NON:** Arrasateko Amaia antzokia.
**EGUNA:** Zapatua, otsailak 27.
**ZENBAT JENDE:** 200 lagun inguru.
**IRAUPENA:** Bi ordu.



Pettik eta Barrence Whitfieldek eszenaratze dotorea erakutsi zuten.
JOSETXO ARANTZABAL.

**A.Z / A. BARRUSO** > ARRASATE

Arrasateko Amaia antzokia ilun, argi barik, zegoen 19: 55ean; Petti eta Barrence Whitfielden kontzertua hasi baino bost minutu lehenago. Antolatzaileak emanaldia bertan behera uztekotan egon ziren, baina 20:00ak puntuan argia itzuli zen eta kontzertuak iraun zuen denboran ez zen inolako arazorik egon argindarrarekin. Zapatu iluntzean beraz, zorteko izan ziren Amaia antzokira hurbildutakoak; Xinthia ziklogenesiak atseden apur bat eman zuen eta kontzertua ezin hobeto atera zen. Aurreikuspenak gainditu egin ziren; 200 pertsona inguru batu ziren Amaiako areto nagusian, beraz, antolatzaileek asmatu zuten kontzertua hallean beharrean areto nagusian egiten.

**GIRO ONEKO GAUA**

Pettik eta Barrence Whitfieldek giro oso berezia sortu zuten Amaia antzokian; ezohiko giroa. Hasteko eta behin, ez da ohikoa horrelako leku batean kontzertua garagardo bat hartuaz ikusi ahal izatea. Bestetik, ikusleak eserita egoteak ez zuen emanaldia batere hoztu. Kontzertuaren amaiera aldera gainera, taularen aldamenera hurbildu ziren banaka batzuk dantza egitera. Horri guztiari gehitu behar zaio Pettiren eta Barrence Whitfielden indarra, alaitasuna eta sinpatia.

**BAKARKA ETA TALDEAN**

Beratarrak ireki zuen kontzertua; Pettik akustikoan jo zituen bere disko zaharretako hiru abesti. Beltzarana etorri zen gero; Barrence Whitfieldek beste hiru kantu eskaini zituen. Beroketa saioa izan zen hori; ondoren, instrumentuen zaparrada etorri zen; Petti eta Whitfielden ahotsei isats-pianoa, baxua, gitarra eta bateria gehitu zitzaien eta itxura benetan dotorea hartu zuen taulak.

Bertsioak izan ziren jotako abesti gehienak baina guztiak ere Petti-Whitfield nahaste berezi horren ukituarekin. Zentzu horretan azpimarratzekoa Elvis Costelloren *Waiting for the end of the world* abestiaren bertsioa.

Burrundararen ostean Whitfielden txanda etorri zen berriro ere; bakar-bakarrik eta inongo instrumentu barik abestu zuen kantu bat. Bere alaitasunarekin eta umore onarekin jarraituz, oraingo honetan txapela batekin eta *I love mamia* zioen kamisetarekin igo zen taula gainera. Antza denez Bostoneko musikaria zoratu egiten da hemengo mamiarekin.

Gau berezia izan zen zapatukoa eta kontzertuaren amaiera ere halakoxea izan zen; amaierako abestia opari baten modukoa izan zen: Petti gitarrarekin, Whitfield abesten eta isats-pianoarekin lagunduta Credences taldearen *Susie Q* abesti famatua jo zuten. Barrence Whitfieldek dio jende alaitzeko eta pozteko egiten duela berak musika; Arrasaten bete zuen helburua.

**KONTZERTUA** > OREKA TX

## Mundukidek txalapartarekin ospatuko ditu hamar urteak

Oreka TX taldeak kontzertua eskainiko du egubakoitzean, martxoak 5, Elgetako Espaloia Kafe Antzokian

**ARRITXU BARRUSO** > ELGETA

Mundukide Fundazioak hamar urte bete ditu. Hori horrela, urteurrena ospatzeko ekitaldi berezia egingo dute egubakoitz honetan, martxoak 5, Elgetako Espaloia Kafe Antzokian. Ospakizuna txalaparta doinuekin amaituko dute; Oreka TX taldeak bere azken ikuskizuna, *Nomadak TX Zuzenean* eskainiko du.

**NOMADAK TX**

Oreka TX taldeko Harkaitz Martinez San Vicentek eta Igor Otxoak 2003an ekin zioten Nomadak TX proiektuari. Mongolia, India, Laponia eta Saharan izan ziren eta bidaia horietan tokian tokiko musikariekin batu ziren txalapartari ekarpen berriak egitez. Hiru urtez lanean jardun ondoren, jasotako materialarekin diskoa, film dokumentala eta DVDa kaleratu zituzten. Filmak nazioartean arrakasta handia lortu zuen. Hogei zinema jaialditan eman zuten eta hamalau sari edo aipamen berezi lortu zituen. 2009ko otsailean, gero, Nomadak proiektuaren zuzenekoak etorri ziren. Txalapartariek *Nomadak TX zuzenean* ikuskizunarekin bira hasi zuten Euskal Herrian barrena. Egubakoitzean Elgetan ikusi ahalko dugu beraz, Oreka TX taldearen azken ikuskizuna.

**MUNDUKIDEK HAMAR URTE**

Garapenerako Gobernuz Kanpoko Erakundea da Mundukide Fundazioa. 1999an sortu zen Mondragon taldeko kooperatiben eta Debagoieneko GKE herrikoien iniziatibaz. Proiektu kooperatibo eta autogestionatuak bultzatzen dituzte hegoaldeko herrialdeetan. Gaur egun, nagusiki, bi lan ildo dituzte: batetik, Afrikako proiektuak, Mozambike eta Ekuatore Gineakoak eta bestetik, Hego Amerikan bultzatzen dituztenak, Kuban eta Brasilen esaterako. Hamar urte hauetan herrialde horietan bizi baldintzak hobetzea lortu dute.

**ANTZERKIA** > 'ROSAS ROJAS'

## Emakumeen kontrako indarkeria taula gainean Oñatin eta Aretxabaletan

'Rosas rojas' antzezlana Oñatin ikusi ahalko da martxoaren 7an eta hurrengo egunean Aretxabaletan

**ARRITXU BARRUSO** > OÑATI

Emakumeen nazioarteko eguna dela-eta *Rosas Rojas* antzezlana ikusteko aukera izango da Aretxabaletan eta Oñatin.

Martxoaren 7an, domeka, La Papa taldeak Oñatin taularatuko du bere azken lana, 19:30ean Santa Ana aretoan. Aretxabaletan berriz, Arkupe kultura etxean ikusi ahalko da *Rosas Rojas* antzezlana. Kasu honetan martxoaren 8an izango da, astelehena, 19:30ean.

**PASIOA ETA TRATU TXARRAK**

*Rosas Rojas* antzezlana biolentzia eta tratu txarren gaineko hausnarketa da. Lydia eta Raul protagonisten arteko maitasunean eta pasioan apurkaapurka manipulazio emozionalaren seinaleak agertzen hasiko dira; ondoren, tratu txarrak etorriko dira. Ricardo Combi idazle eta zuzendariak maitasun istorioen sorreran atzeman daitezkeen hainbat jarreren inguruan hausnarketa egiten du, jarrera horiek etorkizunean portaera agresibo bihurtu daitezkeelako. Zuzendariak dio horrelakoetan "prebenitzea sufrimendua ekiditea" dela.

'La Pulga' > Flamenko dantzaria

# "Flamenkoa oso pertsonala da, barneko emozioak ateratzen direlako"

ARRITXU BARRUSO > ARRASATE

**Izen eta abizen euskalduna izan arren flamenkoa dantzatzen du Askoa Etxeberria gasteiztarrak. 'La Pulga' izenez da ezaguna eta berak dio ez dela uste dugun bezain arraroa euskaldun batek flamenkoa dantzatzea.**

**Ez zara, orduan, flamenkoa dantzatzen duen euskaldun bakarra?**

Arraroa dirudi euskaldun bat flamenkoa dantzatzen ikustea baina, banaka batzuk gara. Bilbon eta Iruñean ere badago jendea. Flamenkoa nazioarteko dantza da; Japonen, Hego Amerikan... mundu guztian dantzatzen da. Euskal Herrian ere bai.

**Ikusmin handia sortzen duen dantza da. Arkupen izan zineten pasa den astean eta sekulako arrakasta izan zenuten.**

Bai. Aho zabalik geratu ginen. Sarrera guztiak saldu ziren, ez genuen horrelakorik espero. Argi dagoena da polikipoliki indarra hartzen doala flamenkoa, gero eta gehiago ezagutzen da. Flamenkoak gauza bat dauka eta da ezagutzen baduzu gustatu egiten zaizula.

**Jende gehiena gainera, gaztea zen Arkupen...**

Jende gaztearengan zaletasuna sortzen ari da. Aretxabaletan flamenko ikastaroak ematen hasi naiz eta sekulako arrakasta izan du ikastaroak; beteta dago eta gehienak gazteak dira. Apirilean Arrasaten hasiko naiz eskolak ematen.

**Zure ustez zer dauka berezia flamenkoak?**

Emozioz eta sentimenduz betetako dantza bat da. Gainera flamenko onena bat-batean sortzen dena da, inprobisatu egiten dena. Askotan ezagutzen ez duzun jendearekin elkartzen zara, batek gitarra bat ateratzen du, bestea kantuan hasten da eta bestea dantzan. Horiek dira onenak. Gainera momentu horretan sortzen den energia eta sentimenduak ez dira inoiz errepikatuko. Hori da flamenkoaren beste gauza on bat; momentuan momentuko emozioak adierazten dira. Flamenko saio bat errepikatzea ia ezinezkoa da. Indar asko dauka; espresio handiko dantza bat da.



*La Pulga* flamenko dantzaria. GOIATZ ARANA

**"Flamenkoak gauza bat dauka eta da ezagutzen baduzu gustatu egiten zaizula"**

**"Flamenko saio onena bat-batean sortzen dena da; inprobisatua"**

**Zer egin behar da flamenkoa ondo dantzatzeko?**

(Barre) Ordu asko sartu. Asko praktikatu behar da; eboluzionatu nahi baduzu behintzat bai. Oinetako teknika asko landu behar da, gorputzaren mugimendua, besoak...

**Suposatzen dut estilo desberdinak egongo direla flamenkoaren barruan.**

Noski. Batzuk gogorragoak dira, beste batzuk gorputza erabiltzen dute gehiago edo besoak. Oso pertsonala da. Lehen esan bezala flamenkoa dantzatzen duzunean zure barruko emozioak edo indarra ateratzen dituzu. Pertsona bakoitzaren indarra desberdina da.

**Flamenkoan erabiltzen diren arropak eta osagaiak ere oso esanguratsuak dira, ezta?**

Deigarriena, beharbada, zapatak dira. *Tachuelillas* deitzen diegun txapak dituzte eta egia esan behar badut oso zailak dira kontrolatzen. Erraza dirudi zapata hauekin zarata ateratzea; kanpotik erraza dirudi baina, teknika asko behar da. Soinekoarekin berriz, jendea harritu egiten da daukan pisuarekin; oso pisutsuak izaten dira. Diseinuari dagokionez berriz, denetarikoak daude: bolantearekin edo gabe, motekin edo gabe... Gainera, soinekoak ikustera ohituta gaude baina flamenkoa prakekin ere dantzatu daiteke ederki asko.



ASTE BUKAERA...

## Manolo Muñozekin




Argazkian, Marta Sanchez eta Manolo Muñoz Eskoriatzako Intxaurtxueta kiroldegi kanpoan, zapatuan. GOIENKARIA

# "Domeka emaztearekin pasatzeko eguna da, gustatzen zaiona egiten dugu"

Manolo Muñoz Eskoriatza Kirol Elkarteko presidentea da 1981-82 denboraldia ezkero

Pelikulak pantaila handian ikustea gustatzen zaio, eta askotan Gasteizera joaten da emaztearekin

**MIREIA BIKUÑA** > ESKORIATZA

Manolo Muñoz (Peñaroya-Pueblonuevo, Kordoba, 1951) oso ezaguna da Eskoriatzan. Hango kirol elkarteko presidentea da 1981-82 denboraldia ezkero.

17 urte zituela etorri zen Kordobatik, lan kontuengatik. "Oporretan etorri nintzen Debagoienera osaba-izeba batzuen etxera, eta lanean geratzeko aukeraz berba egin zidaten. Gurasoak konbentzitu ondoren Eskoriatzan geratu nintzen".

Kordoban zegoela ikasi eta lan egiten zuen. Elektronika arloko ikasketak egin zituen, eta Ezkurran sartu zen lanera. Bost urteren ondoren Fagor Ederlanen hasi zen, erretiroa hartu zuen arte. Gaixotasun bategatik hartu zuen erretiroa, behartuta.

**ESKORIATZA KIROL ELKARTEA**

Erretiratuta dagoenetik aspertzeko denborarik ez duela esan digu. Orain ez du lantegian fitxatzen, baina bai Eskoriatza Kirol Elkartearen egoitzan. "Norbaitek nirekin egon gura badu, egunero 17:00etan elkartearen egoitzan aurkituko nau, edo bestela Intxaurtxuetan".

Oraindik gogoan du nola heldu zen Eskoriatza Kirol Elkartera: "19 urterekin atletismoko ordezkari Prudencio Agirianok saila eramateko laguntza eskatu zidan. Anaia txikia korrika egiten hasi zen, eta ordutik hona buru-belarri nabil".

Presidente kargua hartu zuen elkartea desagertzeko zorian zegoenean; hain zuzen ere, 1981-82 denboraldian.

**ZINEMAZALE AMORRATUA**

Manolo Muñozek emaztea eta 29 eta 20 urteko bi seme ditu. Eskoriatza Kirol Elkarteak uzten dion denbora haiekin ematen du, batez ere emaztearekin. "Domeka emaztearekin pasatzeko eguna izaten da. Askotariko planak egiten ditugu. Askotan paseatzera joaten gara eta beste askotan Gasteizera dendak ikustera. Emazteari gustatzen zaizkion gauzak egiten ditugu", esan digu Muñozek. Domekan Intxaurtxuetan partidurik badago, zapatu arratsaldeetan egiten dituzte planak: "Merkataritza-guneren batera joaten gara, eta gehienetan pelikularen bat ikusten dugu. Zinemazale amorratuak gara, baina pantaila handian ikusteko. Ikusitako azken bi pelikulak *Celda 211* eta *Agora* izan dira. Biak ala biak oso onak dira".

